



# Salmoekez otoitzean

**Bizian Gora**


Aita Martzel

## SALMOAKAZ ALKARTEAN OTOITZEAN

0

### 1. GIROTZEA

- a) Angelus
- b) Jaunagan hartuemonean jarri
- e) Espirituari laguntza eskatu
- d) Jaunari otoi laburra, argia eskatuz



### 2. SALMOAREN GUNA ARGIRATU

- a) Herriaren, familiaren edo norberaren egoera gogoratzuz
- b) Jaunaren aurrean jarri: Berak badaki gure barri, maite gaitu, adi dago

### 3. ATAL BAKOTXEAN:

- a) Hasierako irudiagaz bat egin
- b) Esalditxoa gogoan hartu, erabili

### 4. ISILALDITXOA: BARRURATZEKO

Zerbait esan nahi bada, hiru berba gehienez


### 6. ASTIRO ALKARBANANDU OTOITZEAN IZAN DOGUNA

Astiro, garbi ahozkatuz

Amaieran: isilalditxoa, norbaitek berba bi edo hiru

### 6. AZKENEAN:

- 1. Zer esan Jaunak? Agirian, nahiz isilean
- 2. Zelan sentidu naz?
- 3. Eskerrak Jaunari
- 4. Bihotz goxagarria jaso egun barruan erabilteko





Zenbat bider, Jauna, emon deusudan  
zintzotasun-berbea, erabagi eta guzti!

Eta zenbat bider itzi dodan  
dana berba hutsetan!

Gaur zure aurrera natortzu, Jauna,  
eta aurrera egin gura dot bidean.


**Bai, Jauna, berba gitxiago,  
isildu eta ekin lanari.**

**Sarri askotan, Jauna, nire bihotzak,  
berotu eta kontrola galtzen dau;**  
eta galgea gastatu jakon berebila lez naz,  
norabidea galdu eta baztarrak joten.


**Jauna, erakutsi egidazu  
nire bide guztien azken muga;**  
ezarri nire bihotzean  
zein dan nire egunen neurria.  
Ixuri eskeko honen gainera zure argia,  
bizi dodan gaurko  
egunaren huskeria ikusi dagidan,  
eta bilatu dagidan zure begiradearen argitan  
segurtasuna eta salbamena.

**Nik jakin badakit, Jauna,  
nire bihotza zein hauskorra dan;**  
Nik jakin badakit, Jauna,  
nire bizitza zure aurrean  
haizeak daroan hautsa dala.  
Nik jakin badakit, Jauna,  
eguzkitan une bateko kerizpe arina  
besterik ez nazala.

Nik jakin badakit, Jauna, munduko gauzak,  
dirua etabar, nire eskuan hutsa dirala.  
**Nik jakin badakit, Jauna, nire bizitza,  
Zu barik, sustrai bako arbolea dala,**  
urez betetzen izan dauan iturburua  
agortu jakon erreka bat.



Jauna, zer itxaron daiket nire bizitzatik,  
Zu Zeu ez bazara nire bizitza?  
**Zugan dago nire itxaropena;**  
zure eskuetatik itxaroten dot  
eguneroko erantzuna.



Ez egidazu jaramonik egin,  
zoro edo zentzunbako nagoanean, Jauna;  
**nire zoroaldietan**  
**izan pazientzia nigaz, Jauna;**  
errukiz eroan nire bihurrikeriak;  
ez dakit zer egin geratzen jatan bizitzagaz,  
zelan jokatu azkenera arte.


Jauna, eutsi nagizu,  
izan bihotz-bigun nigaz;  
**nire egintzetan tolerantziaz hartu nagizu;**  
nire adinaren pixuak ez nagiala  
nazan baino makalago egin.

Lagun egidazu, Jauna!  
Ulertuazo egidazu sufrimentuak,  
tentaldiak eta aprobaldiak  
bizitzako amaibako Gurutzebidea dirala,  
Zeuk hartu eta eroan zenduan lez.

Ume makal naz,  
ondoan ama barik, laguntza barik.

**Izan zakidaz Zu, Jauna,**  
**bizitzako indar nire makalaldian**

**Hara, lapikogile horren eskuetan**  
**buztin-orea lez naz;**  
Zure bizilekuko teilatu ertzean  
habia egiten dauan kurloia lez naz.  
Ipini gura dot nire bizitzako apurra  
zure bihotzeko lurrean hazitxo bat lez,  
apurka-apurka Zeuk haziago dagizun.




**1. ASE NAGIZU ZURE MAITASUNEZ, JAUNA**

**2. BAI EDER, JAINKO, ZURE MAITASUNA!**

**3. Bertsoa:**

Sinisten dogu, Jainko / Aita zaituguna  
Hutsaren hutsetik Zeuk / sortu gaituzuna.  
Zure eskuan gure / gaua ta eguna,  
Zu gugan ta gu Zugan / hau da batasuna!  
Agortu ezina da / zure maitasuna.



**4. ZU GUGAN TA GU ZUGAN / HAU DA BATASUNA!**

**5. GIZASEMEAK ZURE HEGALPERA BATZEN DIRA”**

**6. Bertsoa:**

Ez da beste aitarik / ez beste amarik,  
Zuk hainbeste daukanik / gure ardurarik.  
Zeutzat egin ginduzun / ez dot zalantzarik.  
Zuk ez dozu galdu nahi / seme-alabarik;  
Ez Zuk, ez guk ez dogu / pozik alkar barik!

**7. EZ ZUK, EZ GUK EZ DOGU / POZIK ALKAR BARIK**

**8. ZURE ETXEKO GURITASUNEZ ASETZEN DITUZU**

**9. Bertsoa:**

Ni izatez izanik / Zeuretzat egina  
Zuregan izan ezik / hau ase ezina!  
Zeugan dago guretzat / poz ta atsegina,  
Zu izanik guretzat / hain maitale fina;  
Gehitu Zureganako / gure maite-mina.

**10. ZUREGAN IZAN EZIK, HAU ASE EZINA!**

**11. ZURE ATSEGINEN IBAITIK EDAZAZOTEN DEUTSEZU**

**12. Bertsoa:**

Baditugu eskeintzak / inguru guztitik,  
iruntzi-ahala gauza / kontsumno-ontzitik...  
Gehienak kalterako / hamar hamabitik.  
Gaur oihu dagitsugu / bihotzen erditik:  
Emoiguzu edaten / zure iturritik.

**13. ZUGAN BAI DAUKAZU BIZI-ITURRIA**

**14. Bertsoa:**

Seintxoa bila dabil / amaren bularra  
eta aurkitu arte / garraxi-negarra.  
Areago niretzat / Oi zure beharra.  
Erakutsi eiguzu / Aita zerutarra,  
Gu aseko gaituan / iturri bakarra.

**15. ETA ZURE ARGITAN IKUSTEN DOGU ARGIA**

**16. Bertsoa:**

Argi-sume gara ta / heldu nahi argira,  
argiaren atzetik / zenbat jira-bira!  
Ixuri, arren, Jauna / bihotzen erdira  
Zuregandik datorren goi-argi distira;  
zuzendu gaizuz, Aita / zure iturrira.

**17. ZUZENDU GAIZUZ, AITA ZURE ITURRIRA.**



Badakit itxaroten deustazuna, Jauna.  
Goizean goiz, eguzkiaren urteeran, arin-aringa urteten badot,  
*Zu gauerditik zain zaukadazala somatzen dodalako.*

**Badakit beti neure ondoan zagozana,**  
oinak lokatzetan hondoratzean, bildurrez nagoanean,  
*Zure presentziak eusten deustalako,*  
*nire ezbaiak uxatuz.*

**Badakit beti parkatzen deustazuna,**  
nire erruak agirian jartzean,  
*zure hatzamarrak nire erruen deskargua*  
*errukizko hare-hautsetan idazten daualako.*



**Badakit nigan etenbako prezencia euki nahi dozuna,**  
nire bizilekua Zu konbidatzeko baino zikinago egonarren,  
*Zeu sartu zaralako nire bihotz-hondoko ostatua bizibarritzera.*

**Badakit beti nire bila zabizana,**  
*nire aurretik pasakeran, Zu ikusi ahal izateko,*  
*behatz puntetan ipini orduko,*  
*Zuk zure begiak jasoten dozuzalako,*  
*neu jatsiaz eta neuk neure mahaira konbidatu zagidazan.*


**Badakit Zeuk bakarrik ase zeinkena nire egarria;**  
*zure egarria neuk ase deizudala eskatzea txartzat hartzean,*  
*Zeuk eskeintzen deustazulako trukean*  
*betiko bizitzako bihotz-barreneko iturria.*

**Badakit Zeu zaitudana abokatu bakarra,**  
nire eguneroko saldukeri txikiekaz  
zure eskuak zulatzen deustudazanean,  
*ez dakidala zer egiten dodan*  
zeure ezpanez dinozulako.

**Badakit Zu bakarrik zarana kapaz**  
nire eginbeharrak aurrera eroateko,  
*nire sare hutsak zure berbearen esanera*  
bakarrik betetzen diralako.

**Badakit Zeuk nahi dozuna beti izatea nire atsedean,**  
*nire nekea arindu daizun Zugana jo orduko,*  
*Zuk beti daukazuzalako prest arrain erre batzuk,*  
*ogi zatikatua eta osatu eta askatzen dauan zure berbea.*





**Badakit nahiago dozuna,**  
nire egintza guztiak baino, neu Zuri eskeintzea;  
ondo egindako nire egitada bat  
Zuri eskeintzeko arduraz nagoanean,  
Zeuk dinostazulako,  
*Ze u barik ezin dodala ezer onik egin.*

**Badakit neu soseguz entzuten ikusi nahi nozuna;**  
izan ere, zure zerbitzuan ahaleginetan dihardudanean,  
*beharrezkoa bat bakarra dala*  
kontura ekarten nozulako.

**Badakit beti zure ondoan euki nahi nozuna,**  
besteei egia erakusteko bide bila nabilenean,  
Zeuk dinostazulako:  
*Neu naz Egia, zatoz eta jarrai Niri,*  
*neure testigu egingo zaitut.*

**Badakit beti zain euki nahi nozuna,**  
ardurea pixka bat izten hasi orduko,  
*areria gitxien uste dodanean datorrela,*  
gogoratzen deustazulako,  
*nire bizilekura sartzeko zuloa egin nahirik.*

**Badakit tratalari zuhur ikusi nahi nozuna,**  
*nire kontura itzi deustazuzan ondasunak*  
*lehen bestean osorik Zuri bihurtzean,*  
*arpegira botaten deustazulako,*  
*euretatik errendimendurik atera barik.*

**Badakit beti errukiaren alde egon naitela nahi dozuna,**  
nire erruak ahaztu daizuzala Zuri eskatzean,  
*Zuk neure parkamen-kapazidadeaz*  
*kondizionatzen dozulako.*

**Badakit nire maitasun-bila zabizana,**  
hori lortzearren egin ahalak egin dozuzalako,  
*inok ez dau maitasun haundiagorik,*  
*bizia emoten dauanak baino.*



## ASE NAIZU MAITASUNEZ, JAUNA!



**“BAI EDER, JAINKO, ZURE MAITASUNA!  
GIZASEMEAK ZURE HEGALPERA BATZEN DIRA,  
ZURE ETXEKO GURITASUNEZ ASETZEN DITUZU,  
ZURE ATSEGINEN IBAITIK EDANAZOTEN DEUTSEZU.  
ZUGAN BAI DAUKAZU BIZI-ITURRIA  
ETA ZURE ARGITAN IKUSTEN DOGU ARGIA”**

**BAI EDER, JAINKO, ZURE MAITASUNA!**

Sinisten dogu, Jainko / Aita zaituguna  
hutsaren hutsetik Zeuk / sortu gaituzuna.  
Zure eskuan gure / gaua ta eguna,  
Zu gugan ta Gu Zugan / hau da batasuna!  
Agortu ezina da / zure maitasuna.



## **GIZASEMEAK ZURE HEGAPERA BATZEN DIRA**

Ez da beste aitarik / ez beste amarik  
Zuk hainbeste daukanik / gure ardurarik.  
Zeutzat egin ginduzun / ez dot zalantzarik,  
Zuk ez dozu galdu nahi / seme-alabarik,  
ez zuk, ez guk ez dogu / pozik alkar barik.

## **ZURE ETXEKO GURITASUNEZ ASETZEN DITUZU**

Ni izatez izanik / Zeuretzat egina,  
Zuregan izan ezik / hau ase-ezina!  
Zeugan dago guretzat / poz ta atsegina  
Zu izanik guretzat / hain maitale fina,  
gehitu Zureganako / gure maite-mina.

## **ZURE ATSEGINEN IBAITIK EDANAZOTEN DEUTSEZU**

Baditugu eskeintzak / inguru guztitik  
iruntzi-ahala gauza / kontsumo ontzitik...  
Gehienak kalterako / hamar hamabitik.  
Gaur oihu dagitsugu / bihotzen erditik:  
“Emoiguzu edaten / zure iturritik”


## **ZUGAN BAI DAUKAZU BIZI-ITURRIA**

Seintxoa bila dabil / amaren bularra,  
eta aurkitu arte / garraxi, negarra,  
areago niretzat / oi zure beharra.  
Erakutsi eiguzu, / Aita zerutarra,  
gu aseko gaituan / iturri bakarra.

## **ETA ZURE ARGITAN IKUSTEN DOGU ARGIA**

Argi-seme gara ta / heldu nahi argira,  
argiaren atzetik / zenbat jira-bira!  
Ixuri, arren, Jauna, / bihotzen erdira  
Zuregandik datorren / goi argi distira;  
Zuzendu gaizuz, Aita / zure iturrira.





## BAI MIRAGARRIA!

-8. Salmoa-


*Jauna, gure Jauna,  
bai miragarria zure izena  
lurbira osoan!*

1. Zure izena bai **miragarri**  
zeru-itsaso-lurretan!  
Umetxoaz lez **gaukazuz**, Jauna,  
pozarren **gorespenetan**
2. Zuk egina zeruen gaina,  
ilargia **ta** izarrak,  
lur-itsasoak **eta** eurretan  
agertzen **diran** indarrak.
3. Hau bizileku zoragarria  
Zuk guri **dohain** emona!  
Zuk hainbestean gu **maitatzeko**,  
oi Jauna, zer **da** gizona?
4. Munduan egin dozu errege,  
lurreko jaun **eta** jabe,  
arrain, xomorro, **ardi** ta zaldi  
guztiak **autortzen** dabe.
5. Txiruliruli ta **txorrotxioz**  
milaka txori abesten,  
liluraturik **gaukazuz**, Jauna,  
eurakaz bat **Zu** goresten
6. Etxe abere ta **basapizti**,  
dohai ahalmenez jantziak,  
irrintziz, marruz, txistuz ta oihuz  
Zuri, Jauna, **gorantziak**.
7. Hodeiak burdi, tximistak argi,  
burrumba **trumoi** tronpeta,  
kantuz dinogu: **Eskerrak** Zuri,  
euri ongarriz aseta.

8. Eguzki argiz bizten gaituzu,  
zaintzen ilargi-izarrez;  
Hau zoramena, izartegian  
hor Zu, Aita, irriparrez!
9. Arrain txikiz ta haundiz beterik  
itsasoaren sabela,  
olatu-hotsez autortzen dabe  
Zu Egile zaituela.
10. Hau gizonaren haunditasuna  
zure antzeko egina,  
Zeuk jarri dozu aingeru-mailak  
jotzeko baizen bikaina!
11. Hain goxo dira bihotz taupadak  
lur amaren sabelean,  
zer asegarri izango ete  
Aita, zeure magalean!
12. Aintza Aitari, Semeari ta  
Espiritu Santuari,  
gizaldi eta gizaldietan  
diran guztien Jaunari.

### OTOITZA

Gure Jaun eta Jaungoikoa,  
miragarria da zure izena lurbira osoan:  
Zeruko ilargi-izarretan,  
guztien buru ipini dozun gizonagan,  
hilen artetik biztu dozun Kristogan.  
Emoiguzu zure Espirituaren argia  
eta umetxoen xalotasuna,  
gauza guztietan eta guztien bidez  
Zu goraldtu zaiguzan.



**BAI MIRAGARRIA ZU, JAUNA**

1. BAI MIRAGARRI ZU, JAUNA!
2. JAUNA, GURE JAUNA,  
BAI MIRAGARRI ZURE IZENA LURBIRA OSOAN
3. UMETXOA LEZ GAUKAZUZ, JAUNA, POZARREN GORESPENETAN
4. HAU BIZILEKU ZORAGARRIA ZUK GURI DOAN EMONA
5. ZUK HAINBESTE GU MAITATZEKO, OI JAUNA, ZER DA GIZONA?
6. MUNDUAN EGIN DOZU ERREGE, LURREKO JAUN ETA JABE
7. TXIRULIRU TXORROTXIOZ, MILAKA TXORI ABESTEN
8. LILURATURIK GAUKAZUZ, JAUNA, EURAKAZ BAT ZU GORESTEN
9. JAUNA, GURE JAUNA,  
BAI MIRAGARRIA ZURE IZENA LURBIRA OSOAN
10. HAU ZORAMENA, IZARTEGIAN, HOR ZU, AITA, IRRIBARREZ!
11. HAU GIZONAREN HAUNDITASUNA, ZURE ANTZEKO EGINA!
12. HAIN GOXO DIRA BIHOTZ-TAUPADAK LUR AMAREN SABELEAN
13. ZER ASEGARRI IZANGO DA, AITA, ZURE MAGALEAN!
14. JAUNA, GURE JAUNA,  
BAI MIRAGARRIA ZURE IZENA LURBIRA OSOAN!



**OTOITZA**

Gure Jaun eta Jaungoikoa,  
miragarria da zure izena lurbira osoan:  
Zeruko ilargi-izarretan, guztien buru ipini dozun gizonagan,  
Hilen artetik biztu dozun Kristogan.  
Emoiguzu zure Espirituaren argia eta umetxoen xalotasuna,  
Gauza guztietan eta guztien bidez, Zu goraldtu zaiguzan.



**Maite zaitut, Jauna,**  
nire otoitz-eskaria entzun dozulako.  
**Maite zaitut, Jauna, zure belarria**  
nire dei-hotsera makurtu dozulako.

**Zugaz nago, Jauna, zure maitasunak**  
**emoten deutso zentzuna nire bizitzari;**  
Zugaz nago, Jauna, Zu zaralako  
nire salbamena eta nire itxaropena.

**Batzutan bakarrik sentitzen naz, Jauna,**  
eta inguruak ere ez deust laguntzen;  
ni harrapatu nahirik  
nire aldera zabaltzen dabez sareak.

Marasmearen amaraunean lez,  
hor dihardue gaizkileak  
euren alderako ni harrapatu nahirik.  
**Nire estularrian eta tristuraldian**  
**Zugana zabaltzen deusut bihotz osoa.**

**Salbau egizu nire bizia, Jauna,**  
guzurraren kolpe gogorretatik;  
salbau egizu nire bizia, Jauna,  
berba faltsu eta labanetatik.

**Emoidazu zure indarra, Jauna,**  
mozorro barik arpegi argiz jokatzeko.  
Emoidazu zure indarra, Jauna,  
hartu dodan sinismenean zintzoa izateko.

Zu samurra eta zuzena zara, Jauna;  
gizakiarentzat errukitsu zara.

**Zuk zeure eskuetan**  
**gordeten dozuz txikiak eta apalak.**

Gora jasoten dozu zapalduta  
eta lurjota dagoan gizona.  
**Nire bizia salbau dozu**  
eta zure maitasunetik  
datorren sendotasuna sentitzen dot.

**Bihurtu zaitetz, ene bihotz,**  
**bihurtu zure atsedenera:**  
Baretu zaitetz!  
Bihurtu zaitetz, ene bihotz,  
bihurtu zure lasaitasunera.







Berreskuratu bakea!  
Bihurtu zaitez, ene bihotz,  
bihurtu zure alaitasunera:  
Arnas hartu egizu!  
Bihurtu zaitez, ene bihotz,  
bihurtu zure atsedenera:  
**Berreskuratu maitasuna!**

Zuk, Jauna, gorde dozu  
nire arimea heriotzetik; nire oina jaustetik;  
Zuk, Jauna, lehortu dozuz  
nire begietako malkoak,  
**zaindu nire gauetako lo galduak.**

**Zutaz fiatzen naz, Jauna,**  
sarri zoritxarreko eta bakarrik sentiduarren;  
Zutaz fiatzen naz, Jauna,  
nire porroten aurrean,  
urtenbide faltsoak askok eskeiniarren.


Zure presentzian ibili nahi dot,  
zure berbearen argitara;  
**Zure presentzian ibili nahi dot,**  
zure Ebanjelioan bizitza oinarrituta.

**Zure presentzian ibili nahi dot,**  
bizitz-Ogiaren indarrak lagunduta;  
zure presentzian ibili nahi dot,  
zure Espituaren maitasunean indarbarrituta.

**Eskerrak Zuri, Jauna, zure ikasle naz,**  
zure egitasmoaren jarraitzaile;  
hemen naukazu gurutzea lepoan  
eta bidean aurrera  
egunez-egun, pausoz-pauso;  
ni zugaz noa eta zure deiari erantzuten  
zintzoa izan nahi dot.

**Nire kateak Zuk eten dozuz,**  
libre naz eta bihotza pozik dago fedean;  
datorrena datorrela,  
zintzoa izan nahi dot, Jauna, neure bidean.

Zure aginduak beteko dodaz,  
tinko eutsiko deutset Zugaitik  
egindako aukera guztiei, adorez jokatuta, Jauna,  
**Zugaz seguru azkenera arte helduko naz.**





**Jauna, Zu nire barru-hondoraino sartzen zaiataz,**  
 eta barru-barrutik ezagutzen nozu.  
 Badakit: Ezagutzen nozula noiz gelditzen nazan  
 edo noiz zer egin ez dakidanean.  
 Nire gogo eta asmoak  
 zeureak bailira ezagutzen dozuzala.

**Zure arrastoa ipini dozu nire bidean,**  
 nire atsedenaldian nire ondoan jesarri zara,  
 nire egitasmo guztiak zehatz-mehatz ezagutzen dozuz.  
 Zuk isilean mutu dagoan gizonaren bihotza entzuten dozu,  
 baita Zugana zabaltzeko berbarik ez daukan bitartean ere.

Sinistezina da: **osoan oratuta naukazu,**  
 Zure eskuzabalez babesten nozu,  
 eta zure-zurea sentitzen naz.  
 Basamortuan hare-garautxo bat lez naz,  
 itsasoan galdutako ur tanta bat;  
 holantxe aurkitzen naz ni zure aurrean.

**Ene Jainko, besoak zabaldu**  
**eta besarkatu nahi zaitut,**  
 zure itsas ertzera heldu nahi dot,  
 eta ezin ikutu ere egin zure lurra.

Neure kautan itanduten dot,  
 baina ez daukat erantzunik;  
**nora jo zure arnasearen beroa ez hartzeko?**  
 Hona nire erantzuna: Nora joan igesi  
 zure begiradakaz topo ez egiteko?

Nire bizitzari oratu eta goruntz egiten badot,  
 gehiagora eraginez, han zagoz Zu.  
 Bidean nekatuten nazanean,  
 eta lurreko hauts hutsa sentitzen nazanean,  
 hantxe bertan neugaz, nekepean katigatuta,  
**Zeugaz topo egiten dot.**



Nire hegoak muga danen gainetik banaroe,  
barria dan zerbait begistatzerakoan,  
nire ametsen itsasoak zeharkatzen badodaz,  
nire hondartzetako hare pegakorrak astinduz,  
han dago zure esku zabal maitekorra,  
zure begiak, eta zure ahoa.

**Hantxe Zu, Lagun leial lez,  
aurkitzen zaitut barriro.**

Nekeak eraginda badinot:

Lainoak baltzez jantzi nagiala,  
aterkin zahar hondatu bat lez.

Gogaituta badinot:

Nigan egun argia gau bihurtu bedi,  
tapaki baltzez estaldu, bide barik itziz...  
**ilunpea ere ez da Zuretzat iluna, Jauna,**  
eta gaua eguna baizen argi jatzu.

**Zure Bizitza nire erraietan bizi bihurtu da,**  
Zuk emon deustazu sorrera,  
eta Zeu zaran helmugaruntz ibili nadin nahi dozu.  
Zeurea nozu: Zure maitasuna da  
nire itaun guztien erantzun bakarra.

Nire amaren sabelean eiho ninduzunean,  
maite-maite ninduzun.

**Eskerrak emoten deustudaz,  
zoriontsu izatera deitu nozulako.**

**Nire arimearen hondoraino ezagutzen nozu,**  
nire barru-hondoan nazana ez jatzu ezer ezkututzen.  
Hau da nire itauna: nire bizitzak ba ete dau zentzunik,  
Zuk, Jaun maite horrek, huts egiten badeustazu?

**Eroan naizu Zeuk**

**gure artean zabaldu dozun bide barritik.**

Nire bizitzaren egitasmoa hortik zuzendu nahi dot,  
eta pausuz-pausu, nire izatearen barren-barrenetik Zuretzat bizi.



**BEGIOK MENDIETARA JASOTEN DITUT  
(121)**

9

**Nahizta ibili  
ilunpetan,  
Zuk jartzen nozu  
ni baketan.**

Begiok mendietara jasoten ditut nik  
Laguntza niri nundik?  
**Jaunagandik nire laguntza,**  
Harek egin ditu-ta zeru-lurrak.



**Nahizta ibili  
ilunpetan  
Zuk jarten nozu  
ni baketan.**

Nire bihotza mendi-gailurrak baino gorago jasoten dot.  
**Nire iluntasunetik, putzu sakonetik,**  
Zugana hegaz doa, Jauna,  
nire indarbako garraxia,  
laguntza-eske.

**Nahizta ibili  
ilunpetan  
Zuk jartzen nozu  
ni baketan.**

**Zuk luzatzen deustazu beso sendoa,**  
lurreko indar guztiak baino indartsuagoa,  
nire gatx guztiak batera baino areago.  
Ez al dozu jasoko gartsu  
nire mila eta bots bildurren aurka?

**Nahizta ibili  
ilunpetan  
Zuk jartzen nozu  
ni baketan.**

**Nahizta ibili  
Ilunpetan,  
Zuk jartzen nozu  
ni baketan.**

Iluna ihesi badoa, zeri bildur?  
Gau baltzean bakarrik banengo ere,  
zergaitik ikara?

**Zu ez zagoz inoiz lotan.**

Egunaren eta gauaren gainetik zagoz,  
maitasunez zain itzarrik.

**Nahizta ibili  
ilunpetan,  
Zuk jartzen nozu  
ni baketan.**

Ez deutsee nire oinei itziko  
labankadarik egiten,

**ez nozu hutsean galduten itziko.**

Nire pauso bakoitzean zainduten nozu,  
zure esku sendo maitekorrez.


**Eta nire eskumaldean zagoz,**

aita on bat bezala,

nire oinak zainduten,

gatxetik eta arriskuetaatik ni aterateko,  
orain eta betirako.

**Nahizta ibili  
ilunpetan,  
Zuk jartzen nozu  
ni baketan.**



## BEHARTSUAREN ABERASTASUNA

(34.salmoa)

1

Bedeinkatzen dot Jauna  
une guztietan,  
Haren kantu txorta bat  
daukat ezpanetan.  
Jaunagan alai daukat  
gogoa benetan,  
behartsuak aseaz  
nik neure pozetan.

2

Goraldue egizue  
Jainkoa neurekin,  
gora Haren izena  
danok alkarrekin.  
Bera aurkituteko  
egin dot ahalegin,  
arriskueta lagun  
Jauna dot atsegin.

3

Jaunaren aingeruak  
zintzoen alboan,  
arduraz dagoz beti  
zaintzeko asmoan.  
Hara zelan naukan gaur  
babespe gozoan,  
Jaunagan bizitzea  
zorion osoan!

4

Zuok aukeratuok  
goraldu Jainkoa,  
ta Beragan lortuko  
dozue nahikoa.  
Goseak menpe dauka  
aberats harroa,  
ta Jaunak asetzen dau  
behartsu gaixoa.



5

Ezbeharrez deadar  
dagitsoenean,  
laster jarriko ditu  
pozaren menpean.  
Beti dabil negarrez  
daozanen artean,  
kemen izan dagien  
oinaze-bidean.

6

Haundiak dira egiz  
zintzoen nekeak,  
askotan negar malko  
garratzez beteak.  
Baina Jaunak argitzen  
deutsiez bideak  
Berak zaintzen ditu ta  
bidean maiteak.


7

Gaiztoa galduko da  
bere okerrean,  
zuzenaren kontrako  
guztiak batean.  
Zerbitzari zintzoak  
Jaunak, bitartean,  
onez jarriko ditu  
betiko bakean.

8

Eskerrak Zuri, Jauna  
entzun nozulako,  
Zu zaitugu lagun ta  
nahiko niretzako.  
Beti zaitut ondoan  
arduraz zaintzeko,  
hau jakinda zelan nik  
ez zaitut maiteko?





Jesus Jauna, benetako adiskidea zara,  
artzain ona dan lez,  
ardiak banan ezagutzen eta  
euren izenez deitzen dituan lez.  
**Nigaz adiskide zintzoa zara**  
eta ez jat ezer falta.


Ez jat ezer falta,  
nire bihotzaren gurari guztiak  
Zuk betetzen dozuz-eta.

**Ez jat ezer falta,**  
**Zu nire ondoan zagoz-eta,**  
nahizta beste danak bakarrik itzi.

Ez jat ezer falta, Zuk nigaitik bizia  
emon dozu-ta gurutze gainean;  
ez jat ezer falta, zure parkamena  
eta grazia beti lagun ditut-eta.  
Zure dohaiez ornidu nozu,  
zure bizi-ogiaz janaritu nozu;  
**Zure Espirituaren pozez**  
**eta bakez bizibarritu nozu.**

Zuk naroazu, artzain onak lez,  
ur bizen iturrietara,  
eta nire egarria baretuten da zure iturriko urez.  
**Zuk bixkortzen dozu nire arimea,**  
biderako indar barik gelditzen nazanean;  
Zuk bixkortzen dozu nire arimea,  
lurjota eta bakarrik sentitzen nazanean.

Jesus Jauna, beti zara adiskide zintzoa,  
artzain ona lez, bere artaldearen defentsan  
bere bizia emoten dauan artzain onaren antzera;  
ibar ilunetatik ibili behar badot ere,  
ez dot ezelango txarren bildurrik,  
Zu beti neugaz zagoz-eta.  
**Zure ondoan ez dot ezeren bildurrik.**



Zure makileak baretzen nau, Zugaz dana daukat.

**Zure Berbeak eusten deutso**  
**nire arimeari ilunpetan;**

Zure Berbea da zutabe sendoa nire gauaren euskarri;  
Zure Espiritua da nire indar eta segurtasuna zalantzetan;  
Zure Espiritua da argia eta beroa  
nire oin nekatuak bixkortzeko.



**Zu benetako Adiskidea zara, Jesus Jauna,**  
otsoa datorrela-eta, mendian behera igesi ez doana;  
**Zu beti neugaz zagoz eta nire alde zagoz sendo,**  
neu txarretik askatu eta indar barriz bete arte.



**Zuk atonduten deustazu mahaia,**  
**Adiskide Horrek,**  
eta neure ondoan jesarten zara;  
burua orio santuz gantzututen deustazu  
adiskidetasun-ezaugarritz,  
eta nire edontzia gainez eragiteraino  
beteten dozu arda gozoz.

Zure adiskidetasunaren grazia eta dohaia,  
**Jesus Jauna, artzain ona,**  
izango dodaz lagun  
nire bizitzako egun guztietan.  
Zoriontsu izango naz zure  
eten ezineko zintzotasunari esker;  
eta beti izango dot zure maitasunaren  
ziurtasuna gehiago ezinean.

Nire bizilekua, Jesus Jauna,  
nire benetako Adiskidea eta artzain ona,  
zure bihotzeko Zauri-zuloa izango da,  
urez eta odoletan zabalik.

**Bizitzan zehar beti sinistuko dot**  
**zure maitasunean,**  
izan ere, ez dau inok maitasun haundiagorik,  
adiskideagaitik bizia emoten dauanak baino.

Zu zara, Jesus, Jauna, artzain ona,  
bere artaldea artegira daroana;  
Zu zara, Jesus Jauna, benetako adiskidea,  
inoiz morroitzat hartzen ez gaituzuna.  
Zu zara Aitaren bihotzeko sekretuak  
ezagutzera emon deuskuzuzana.  
**Nire bizia salbau deustazun adiskidea zara,**  
Zeuk gurutzan eskegita.

Erakutsi egidazu, Jesus Jauna, bizia emoten,  
bizitzen jarraitu beharra daukenen alde;  
erakutsi egidazu, Jesus Jauna,  
bakarrik dagoan anaiaren ondoan  
zintzotasunez irauten.

**Zu zara Aitaren bihotzera daroan bideko Atea:**  
Zuzendu nagizu, Adiskide, eta eroan nagizu  
zure Erreinuko ur bare garbietaruntz.

**BIHOTZ SENDO BATENTZAKO SALMOA**

**Jainkoa da gure gordeleku eta indar,**

Bera gure laguntzaile arriskuan.

Jainkoa gure ondoan dago,  
gure ondoan taldekide lez.

Horregaitik ez gara bildur,  
mundua azpikoz-gora jarri arren,  
indar gaizto guztiak  
gure aurka jagiten badira ere.

Horregaitik ez gara bildur,  
nahiz mendiak itsas-erdira jausi,  
eta eskuetatik dana lurrera jausten bajaku ere.

Eta zer, itsasoa irakiten  
eta orroaka hasten bada ere,  
mendiak olatu gainean hara-honaka erabiliz?

Jainko Jauna gugaz dago,  
ezin jaku jazo esateko txarrik ezer.

**Datorrena datorrela,  
ezerk ez gaitu Zugandik aldenduko.**

Jaungoikoaren graziak eta ontasunak  
alaitzen dabe gure bihotza bidean.

**Jainkoa gure erdian gelditu da,**  
bere bizilekua gure artean jarri dau betiko.

Jauna gure erdian dogula,  
ez gara bildur;  
egunsentitik lagunduten gaitu.

Jainkoa Jauna da, indartsua da.

**Jainkoa Jauna gugaz dago,**  
ezin jaku esateko txarrik ezer jazo.


Datorrena datorrela,  
ezerk ez gaitu Beragandik aldenduko.



Begiak zabal-zabalik daukadaz,  
Jaunaren harrigarriak ikusteko.  
Bera da lurraren Jabe,  
**eta dana dago bere esku ahaltsuetan.**  
Berak desegiten ditu hormak,  
ezpatak triskatu, ezkutua kiskaldu.

**Jauna da bakarrik Jainko!**  
Beragan dogu guk uste on.  
Ezin jaku ezer falta!  
Jainko Jauna dago gugaz,  
eta esateko txarrik ezer ezin jaku jazo.  
Jazo leikigunik ezerk  
ezin gaitu Beragandik aldendu.

( 45. salmoa )



BIDEAN DOAN GIZONAREN SALMOA  
(121)

Hau poza sentitzen dodana,  
Eleiza nazala aurkitu dodanean!  
Hau poza, Herri barri baten barruan noala jakitean!  
Hau poza, nire sinismena zugaz konpartitzean,  
zure jarraitzaile diranakaz!  
Hau poza, anai-arreba lez zure Etxera-bidea egitean!

Ederra da anaiak alkaturik bidea egitea,  
gizon bakar lez; erreztu egiten da bidea,  
neure anaiari bizkarretik oratuta;  
gozoa da pozak eta jaiak alkartean konpartitzea,  
pozgarria da alkarrri esku emonda bidea egitea.



Gure oinak, Jauna, bidez-bide martxan dagoz  
eta zure Espiritua da gure arnasea.  
Gure pausoak zure Berbeak zuzenduta dagoz;  
eta gure bihotza poztu egiten da,  
Jainkoaren Herria aurrera doala.


Zure Eleizan, Jesus Jauna, bidea egiten dogu,  
Historian urratsak itziaz;  
Zugaz goaz goruntz igoten,  
zure ekintzan parte hartuz: Gurutzan.  
Gure bideko urratsetan  
zure Ebanjelioko haziak izten doguz.  
Bixkortu Zeuk gure bideko martxa;  
gure eromesaldian eutsi, Jauna.



Zugaz goaz Aitaren Etxerako bidean,  
atea danentzat zabalik dauka-ta,  
betiko bizitzaren itxaropenez goaz bidean, geure zain daukagu-ta;  
gure bihotzak geroko horren egiak pozten ditu;  
eta gure nekeak atzean gelditzen dira,  
zure deiari erantzunez goaz-ta.

Egin gagizuz, bidean goazela, bake-ereile;  
erne dedila bakea gure Herrian, justiziaren frutu lez;  
gure eskuak zabaldu daitezala  
bihotza zaurituta daukan gizonaren sufrimentuetan;  
eta bidean itzi dagiguzala ogia eta gatza,  
testiguen ezaugarri antzera.

Nire anai-arreben maitasunarren,  
Emoiguzu zure maitasuna!  
Sufritzen dagozanen maitasunarren:  
Emoiguzu zure errukia!  
Apalen eta zapalduen maitasunarren:  
Emoiguzu zure Egia eta zure Askatasuna!  
Makalaren, umearen, bakartiaren maitasunarren:  
Emoiguzu fedearen dohaia!



Bakea zuri anaia-arreba:  
Izarratuaren sabai azpian bizi zaran horri!  
Bakea zuri, anaia-arreba:  
Zeure eskuentzat lurrik ez dakazun horri!  
Bakea zuri, anaia-arreba:  
Familia bateko berotasunaren barririk ez dozun horri!  
Bakea zuri, anaia-arreba:  
Isilean negar egiten eta ogiaz amets egiten dozun horri!

Emoiguzu zure bakea, anaia-arreba:  
Benetako pobrearen bihotza daukazun horrek!  
Emoiguzu zure bakea, anaia-arreba:  
Garbi, zuzen eta zintzo zaran horrek!  
Emoiguzu zure bakea, anaia-arreba:  
errukitsu eta juxtu zaran horrek!  
Emoiguzu zure bakea, anaia-arreba:  
Bihotzez otzan eta apala zaran horrek!



Bidez-bide doan Eleizan alkartuta:  
ondasun guztia opa deutsugu, anaia-arreba!  
Bidez-bide doan Eleizan alkartuta:  
zuri justiziazko bizitza eroatera konprometitzen gara!  
Bidez-bide doan Eleizan alkartuta:  
Oraindik ez daukazun bakea opa deutsugu, anaia-arreba!



## BIDERA KO SALMOA


Zuri agertzen deusudaz, Jauna,  
 nire gogoa eta ahalegina,  
**Zugan dot, Jauna, nik uste on,**  
 badakidalako maite nozuna;  
 Zugan dot uste on,  
 aprobaldian ez dagidala nekatuta atzera egin.

**Zure graziak gehiago egin dagiala beti nigan.**  
 Nik beti Zugan itxaro dot.  
 Ondo dakit ez deutozula huts egiten  
 Zugan itxaroten dauanari.

Erakutsi egidazuz, Jauna, zure bideak;  
 erakutsi zure bidezidorrak.  
**Eroan nagizu zure egi-bidetik eta argitu.**  
 Zabaldu beitez nire bizitzan bake ta onbideak,  
 justizizko eta askatasunezko bideak;  
 anaitasun eta zerbitzu-bide zidorrak.

Gomutau zaitez zure errukiaz, Jauna,  
 gomutau zure maitasunaz, betikoak dira-ta.  
 Ez ekarri gogora nire pekatuak.  
**Gomutau zaitez nitaz zure maitasunean,**  
 Jauna, zure ontasunean.

Ona eta zuzena zara, Jauna,  
 bidegalduei onbidea erakusten deutsezu.  
 Apalak zuzenbidez daroazuz;  
 erakusten deutsezu apalei zure bidea.  
 Zure bide guztiak grazia eta leialtasuna.



**Zure izenagaitik, Jauna, parkatu nire gaiztakeria.**

Zugaz zintzoa nazanean, Jauna,  
Zeuk erakusten deustazu bide zuzena;  
Holan pozik biziko naz,  
eta zure dohaiez aberastuko nozu.

**Zu, Jauna, nigaz fiatzen zara  
eta beti itxaroten deustazu.**

Zuk, Jauna, benetan  
zure laguntzat hartu nahi nozu.  
Nire begiok Jaunagan beti,  
nire katigukeri eta loturetatik  
Zuk askatu nozu-ta.

**Begira niri eta nitaz erruki,  
bakarrik eta errukarri nago-ta.**

Arindu bihotz larri hau,  
atera nagizu esturaldi honeetatik.  
Ikusi nire zoritxarra eta nekea,  
eta parkatu nire hoben guztiak.

Jauna, zaindu nire bizia eta onez atera nagizu.

**Urten dagidala neure koba-zulotik,  
eta Zuganuntz joan nadila,  
eta ez nadila lotsatu Zugana batu izanaz.**

**Erakutsi zure bideak, Jauna, nire Bide Zu zara-ta.**

Egi-bidetik eroan nagizu,  
gizakiaren Egia Zu zara-ta.  
Nire baitan dodan bizi-iturburua bizierazo egizu,  
dan guztiaren Bizia Zu zara-ta.

(24. salmoa)



**Jauna, izan pazientzia nigaz,**  
onartu nire makaltasuna;  
itxaron, nire bihotza aldatu eta bihurtu daiten.  
Mila arazo daroadaz bihotzean,  
arantza zorrotzak lez josita,  
eta kurutze astuna jausi jat gainera,  
burua makurtzeraino.



Nire bihotza zikin dago  
eta ez naz garbi ikusten;  
pekatua nire buruaz bat eginda dago  
eta **ez daukat askatasunik.**

**Pekatu egin dot, Jauna,**  
eta nire errua zama astun egin jat,  
ez deust izten arnasa hartzen ere  
eta bizipoza kentzen deust.

**Zaurituta sentitzen naz, indar barik,**  
nire bihotz makal honen zorakeriakaitik.  
Zimurtuta, makurtuta,  
zehatz hondatuta, Jauna,  
egun osoan burumakur  
eta saminez, urteera barik.

Hau da hartu dodan itxura itsusia, lotsagarria!  
Neure buruari begira,  
**ez dot ataltxo bat ere osorik aurkitzen nigan.**  
Eta inundik laguntzarik ez,  
adorerik ez, makilaz mailaturik lez,  
eta nire bihotza odoletan, amorruez irakiten.

Halan eta guztiz ere,  
**nire begiak zugar aurkitu nahi dabe erantzuna;**  
eta nire arazo eta sufrimentuak eraginik,  
Zugana jasoten dot nire oihua.  
Bihotza triki-trak makalean,  
indarrak alde egin deuste,  
eta begien argia eta poza galdu dot.



Nire lagunak, nire etxeakoak, betikoak, Jauna,  
gero eta urrunago sentitzen dodaz,  
aldenduta, nire gauean galduta.

Hona hemen gaur, Jauna,  
guztiz minberatuta danagaitik.

**Errazoirik ez, baina niretzat gaur dana da arazo,**  
eta ezin naz bizi ere zeozeren min edo kezka barik.

Gor bat emoten dot sarri, Jauna,  
mutu baten antzeko naz, Jauna,  
eta ez deutsot inori ezeren konturik emoten.  
Maite nauenen berbak urrun sentitzen dodaz,  
eta bardin jat baltz zein zuri izan.

**Hau bizitzea al da?**

Hau eta guztiz ere, hemen nago, Jauna,  
beti lez, Zuri itxaroten;  
Zu zaitut, nire bizitzan,  
erantzunik ez dauken arazoen erantzuna.

Parkatu nire pekatua;  
**askatu, arren, lotuten nauen lokarriak.**  
Zuk ulertzen deustazula  
sentidu dagidala, Jainko ona,  
eta ez nadila “martiri” sentidu nire lagunen erdian.

**Nire bihotza zaurituta dago, Jauna, apurtuta dago.**  
Pozik bizi nahi, eta kontrakoak gehiago egin.  
Ene Jauna, hurreratu zaitez hazur lokatuetara,  
eta ez zaitez urrun gelditu,  
ezer ardura ez deutson baten antzera.



**Jauna, zatoz laster laguntzera;**  
luzatu arin zure eskua,  
Zu zara, ba, nire salbamen-Jainkoa,  
nire itxaropen-Jainkoa.  
Zure maitasun-Espirituak  
osatu dagizala nire zauriak;  
Zure bizi-Espirituak osatu gagizala.  
Bizibarritu dagiala  
nire bihotz nekatu eta hotza.

**Jagi zaitetz, Jauna,**  
**nire ontasuna eta nire errukia,**  
 eta hurreratu zaitetz  
 gaur gure bihotzetara;  
 kendu gure begietatik zapia,  
 iluna besterik ez dabe ikusten-eta,  
 eta bigundu gizon harroaren  
 eta zikoitzaren bihotza.

Agertu zaitetz, Jauna,  
 su bizia lez, lur gainean,  
 eta **erakarri egizuz gizonak Zugana,**  
 zure seme-alaba dira,  
 alkar ezagutu barik bizi badira ere.

Itzartu zaitetz, ene Jauna,  
 zutik jarri eta zatoz guganuntz,  
 Zu zara gizakiaren eta Historiaren Jauna.


**Bixkortu egizuz gizonen bihotzak**  
**pekatuz zaurituak,**  
 eta onartu gagizuz guztiok  
 anai-arreba lez zure bizileku ederrean.

Ene Jainko, herri guztien Jauna, nazinoen Jauna,  
**banatzen gaituen hormak bota egizuz,**  
 ate eta leihoak zabaldu,  
 zure maitasun eta zuzentasun eguzkiak  
 lurbira osoa batu dagian.

**Ene Jainko, sortu gugan**  
**bihotz zuzena eta garbia,**  
 guztien onaren bila dabilena, norkeri barik.  
 Ene Jainko, emoiguzu bihotz garbia eta leiala,  
 bere buruaz ahaztu  
 eta besteekaz arduratzen dana.

**Emoiguzu haragizko bihotza,**  
 adiskidetasunera eta  
 alkarlaguntzara zabalik dagoana,  
 gizakiaren erraiak hondoraino  
 ezagutzen dozuz-eta.

Ene Jainko, Zu zuzena zara;  
 Zu santua zara, emoiguzu bihotz leiala.



**Izan zaitetz Zeu bihotz zuzenen salbatzaile.**

Salbau egizu giza-bihotza  
guzurraren ilunpetatik.


Salbau egizu giza-bihotza  
harrokeri zaharraren gogorkeriatik;  
salbau egizu giza-bihotza epelkeriatik  
eta ganorabakokeriatik.

Ene Jainko, gure Jainko,  
onartu egizu gure bihotz bildurtia,  
mundu gaizto eta guzurtia indartsu egin da-ta.

**Emoiguzu grazi-indarra,**  
izan Zeu aprobaldian gure babesleku,  
eta gaiztoakandik zaindu gagizuz.

Jauna, Zuk ondo ezagutzen dozu pekatuz kutsaturik  
dagoan gure izate makal eta jauskorra;  
Zuk ondo ezagutzen dozu  
gure atean deitzen deuskun tentaldiaren indarra;  
Zuk ondo ezagutzen dozu gure bihotzaren huskeria,  
krisialdiak joten gaituanean.

Zatoz, Jainko, Zugana joten dogu-ta;  
**zatoz eta salbau gagizuz.**



Askatu gagizuz eta inok ez dagiala,  
lehiak lez, gure bizitza zapuztu.

Parkatu, arren, zure egitik  
eta graziatik sarri urrundu izana.

**Emoiguzu parkamenerako  
eta errukirako bihotz edegia,**  
eta ez gaitezala inoiz sentidu  
beste inor baino hobeak.

**Ez eiguzu itzi, Jauna, zulora jausten,**  
leza sakonean hondatzen;  
ez itzi, arren, gure oinak heriotz-lakioan harrapatzen.

**Eta zelaitu gure bidea, arnas-barritu gagizuz.**  
Hemen gaituzu, Jauna, behartsuak, apalak,  
zure ama-esku bigun eta sendoen preminan  
dagozan umeak lez.

Eskerrik beroenak Zuri, Jainko Jauna,  
Historiaren eta gizonaren Jauna,  
Eskerrak Zuri, zuzena, ona eta santua zarealako.  
Ene Jainko, Jaun Ahalguztiduna,  
diran eta bizi diran gauza guztien Jaun bakarra,  
**Zugana doa gure bihotz zintzoaren erditik gure abestia.**

Aleluia, Jauna! **Zaindu nagizu,**  
**nire gordeleku Zu zara-ta.**  
Aleluia, Jauna! Onartu nagizu,  
nire bizileku Zu zara-ta.  
Aleluia, Jauna! Gorde nagizu,  
burrukan nire babeski Zu zara-ta.

Nik bihotzez dinot: zu zara nire Jauna,  
nire bizitzaren Jainkoa.  
Nik neure bihotzean dinot:  
**Zu zara nire ondasuna**  
eta Zugandik kanpo ez dago ezer.

**Zu zara nire bihotzaren**  
**poza eta zoriona betiko.**  
Zu haundia zara, harrigarria,  
nire existentzia asebetetzeko bestekoa.



Zugan sinisten dabenakaz bat eginda dinotsut:  
Gurtzen zaitut, Jauna!  
Zugan itxaroten dabenakaz bat eginda dinotsut:  
Zugan itxaroten dot, Jauna.  
Bihotzez maite zaituenakaz bat eginda dinotsut:  
Maite zaitut, Jauna.  
Aleluia! Amen! Aleluia!  
**Zorionekoa Zugaz kontatzen dauan gizona!**

**Zu zara nire ondare-zatia,**  
Zu nire edontzirako ardau gozoa;  
zure graziz eta leialtasunez,  
pozez betetzen nozu egunero.

Nire zoriontasuna  
zure ahoko berbatik eskegita dago,  
eta nire begiak aspertu ezinik  
zure ezpanetako irriaren egarri dira.  
**Bedeinkatzen zaitut, Jauna,**  
maite nozulako eta zuzentzen nozulako.

Zu beti nire ondoan zoaz  
eta nire bizitzako bidea zuzentzen dozu;  
**Zu zagoz nire existentziaren erdian**  
eta samurtasunez berba egiten deustazu.



Zugaz seguru sentitzen naz  
eta bidea arindu egiten jat;  
Zugaz nire oinak ez dabiltz kilikolo  
eta Zuk lagunduta gustura nago.  
**Nire bihotza pozez goraka dago**  
eta nire erraiak pozez saltoka.

Zoriontsu sentitzen naz,  
teilatu ertzeko kurloia lez;  
zoriontsu sentitzen naz,  
zeru-betea hegaz doan kaioa lez;  
zoriontsu sentitzen naz,  
gauetz zeru urdinetik eskegita  
ñirñir dagoan izarra lez.  
Aleluia! Amen! Aleluia!

**Zorionekoa zugaz kontaktzen dauan gizona!**

Nire bihotzak atsedean hatzen dau,  
**gustura sentitzen naz zure ondoan;**  
zure Espirituak egi osora eroaten nau  
eta libre sentitzen naz.

**Zure maitasunak,**  
**nire bizitzari segurtasuna emoten deutso;**  
eta zure arpegiak, eguerdiko eguzkiak lez,  
nire bidea argiz betetzen dau.  
Aleluia! Amen! Aleluia!  
Zorionekoa Zugaz kontaktzen dauan gizona!

Erakutsi egidazu, Jauna, nire bizitzako bidea  
eta bete-betea bizitzeko dohaia emoidazu;  
**beti zure arpegi-aurrean ibili nahi dot,**  
nire bizitzako gau ta egun guztietan,  
eta gozauazo egidazu nire bihotz-hondoan  
zure egiazko maitasuna.

Zu zara nire atsegina, Zu nire itxaropena;  
Zu zara nire altxorra, Zu nire ondasuna.


**Zoriontsu naz Zugaz**  
eta pozaren pozez goraka egiten dot,  
mendi gainetan basauntzak lez.

**Alaitu egidazu nire bihotza,**  
jaiaren eta dantzaren Jainko Horrek;  
alaitu egizu zure begirada gozoaren bila  
dabilen nire bihotza.

Aleluia! Amen! Aleluia!  
Zorionekoa Zugaz kontaktzen dauan gizona!

**Jainko, nire Jainko zaitut,  
goizetik bilatzen zaitut.**  
Zure bila, barriro bizira  
deitzen deustazun horren bila.  
Zure bila, nire bizia bixkortzen  
eta birbizten deustazun horren bila.

Zure bila, nire bihotza  
argira zabaltzen dozun horren bila,  
eta beti adi eta arduraz egotera  
deitzen deustazun horren bila.  
Zure bila,  
**beti zeure aurrean pozik eta beterik  
ikusit nahi nozun horren bila.**



**Zure egarri naz,  
zure maitasunaren eta leialtasunaren egarri.**  
Zure egarri naz,  
zure bakearen eta parkamenaren egarri.  
Zure egarri naz,  
zure garbitasunaren eta alaitasunaren egarri.

**Zure egarri naz,**  
zure sendotasunaren eta ontasunaren egarri.  
Nire haragia, ni nazan osoa zure irrikaz dago,  
lur lehor, egarri, urbakoaren antzera.

**Ni oso-osoan zabaltzen naz zure grazira,  
goiz iruntzaren zain.**  
Nire biziak indar guztiz jotzen dau Zuganuntz,  
azkenbako zure biziaren egarriz.  
Nire bihotza nire barruan pozik daukat,  
zure indarra eta aintza neugan somatuz.

Zu zara nire biziaren errazoibidea;  
zure Biziak betetzen dau zentzunez  
nire izate osoa.  
**Zure maitasuna bizia baino hobea da.**



**Jauna, galduta sentitzen naz.**

Zuk dinostazu: alperrik dala goizetik jagitea,  
alperrik dala berandu oheratzea,  
alperrik dala izerdiz bustitako ogia jatea.

Zuk dinozu:

Zure adiskideei Zeuk emoten deutsezula,  
eurak lo dagozala ere!

Zure lagun izan gura dot eta ezertxo ere ez eskatu.

Zure lagun izan gura dot eta zure dohaintasuna bizi.

Zure lagun izan gura dot eta zure salbamera onartu.

**Zure lagun izan gura dot eta Zuk maitatu naizun itzi.**

Zure Erreinuak, Jauna, bixkortu daiala nire gaztetasuna.

**Zure bakea dastatzean, zoriontsu izan nadila.**

Nire bihotza Zuk jasoaz izateaz poztu dedila.

Nire bihotza zure ekintza sortzaileari adi egon dedila,  
neure izatearen barru-hondoan.

Ene Jainko, bizi-emoile zaran Jainko!

Ene Jainko, salbamen-emoile zaran Jainko!

Ene Jainko, dohango Jainko, pobrearen Jainko!

Bere hautsartetik dana zure grazian


bilatzen dauanaren Jainko!

(126. salmoa)



**EGUN BARRIAREN HASIERAKO SALMOA***Jaunak bedeinkatu eta zaindu gaizala*

Nire begiak egunaren  
argi barriak ikututean, Jauna,  
**nire bihotzak Zugana joten dau,**  
zure begiradearen bila.



Entzun egizuz, arren,  
barrero bizia sentitzen dauanaren berbak,  
eta adi egon zakidaz, Jauna,  
**zabalik dagozan nire eskuak**  
**hurrean aurkitu nahi zaitue-ta.**


**Goiz-goizetik zure eskuetan izten dodaz**  
nire kezkak eta nire ametsak;  
goizetik gaueraino zure bidetik  
eroan gura dodaz nire pausoak.

**Entzun nire dei-hotsa, Jauna,**  
hain on ta errukitsu zaran Horrek;  
eta bixkortu Zuk nire bizitza,  
Zugan argia eta beroa bilatzen dodaz-eta.


Begira, Jauna, behartsu honen bihotza,  
txantxangorriak lez,  
**zure esku-barruan babesa bilatzen dau-ta.**

**Gaurkorako Zuk hartu egizu**  
**nire buztin-orea**  
eta moldatu egizu zure asmoen arabera.

**Zure begien aurrean bizi nahi dot**  
eta zure begirada maitekorrak  
barrendu nagien itzi;  
zure begien aurrean, Jauna,  
txiki eta makal sentitzen naz.







**Ixuri, arren, egun honen hasieran,  
zure ontasuna nire gainera.**

Holan nire bihotza seguru sentiduko da,  
eta egunaren hasieratik gogo barriz beteko da.  
Jauna, aldendu nire bidetik inguratzen nauan gatxa  
eta ez itzi guzurak gaur gehiago egin daistan.

Emoidazu apaltasuna, neurritasuna,  
**nire bihotza gaur danakaz biguna izan dedin,**  
inori behar ez dan moduan erantzun barik.

**Zeuk zuzendu eta zelaitu nire bidea,**  
zure lege-bidean zintzoa izan nadin.  
Zure Espirituak esku emon daistala  
larrialdi guztietan.

Nire ahoak iragarri dagiala  
gaur nire barruko poza;  
**nire berbak danen pozgarri izan daitezala.**

Jauna, emoidazu bihotz garbia,  
gaur ikusi zagidazan;  
Jauna, emoidazu pobre-bihotza,  
gaur zure errukia bizi dagidan.

Zure eskuetan jarten dodaz  
gaurko nire asmo eta eginbeharrak:  
**Esku emoidazu.** Zuri eskeintzen deustut  
nazan eta daukadan guztia: **Onartu egizu.**

Biziaren Jainko zaran Horri eskatzen deustut indarra:  
Bixkortu nagizu.


Nire bihotzak maite zaitu eta pozez beterik,  
**Zugan sentitzen da zoriontsu.**

Bedeinkatu nagizu, Jauna, e  
ta eroan nagizu bide zuzenetik;  
beso sendoz zaindu nagizu, izan nire indar.  
**Zure hegopean zaindu nagizu, Jauna,**  
eta holan igaroko dot Zuk maitasunez  
eskeintzen deustazun egun barri hau.

**Ene arima, bedeinkatu egizu, Jauna.**  
 Nire izate osoak bedeinkatu begi bere izen santua.  
 Zu, Jauna, ona eta samurra zara,  
 dei egiten deusuenentzat erruki hutsa.

*GUREKIN EGON, GUREKIN, JAUNA,  
 ORAINDIK DAIGUN HITZ EGIN,  
 HELDU DA GAUA ILUN-ILUNA  
 GUREKIN EGON GUREKIN.*

Jauna, entzun nire otoitza,  
 aditu nire eskariaren ahotsa.  
 Erakutsi, Jauna, zure bidea,  
 zure egi-bidea jarraitu dagidan.  
 Zaindu, arren, nire bihotza osorik,  
 zure izenaren maitasunean.



*GUREKIN EGON, GUREKIN, JAUNA,  
 ORAINDIK DAIGUN HITZ EGIN.  
 HELDU DA GAUA ILUN-ILUNA  
 GUREKIN EGON, GUREKIN.*

**Nire arimeak Jaunagan itxaroten dau,**  
 bere berbeaz fiatzen da;  
 nire arimea Jaunaren zain dago,  
 gauzaina egunsentia baino areago.  
 Jauna beti daukat aurrean:  
 Bera eskumaldean dodala,  
 ez dot zalantzarik izango.

*GUREKIN EGON, GUREKIN, JAUNA,  
 ORAINDIK DAIGUN HITZ EGIN;  
 HELDU DA GAUA ILUN-LUNA,  
 GUREKIN EGON, GUREKIN.*

**Jaunak bere gerizpean gordeten zaitu,**  
 zeure eskumaldean dozu;  
 Jaunak eregiten ez badau etxea,  
 alperrik dihardue etxegileak.  
 Jaunak zaintzen ez badau uria,  
 alperrik dagoz ertzainak.

*GUREKIN EGON, GUREKIN, JAUNA,  
ORAINDIK DAIGUN HITZ EGIN.  
HELDU DA GAUA ILUN-ILUNA,  
GUREKIN EGON, GUREKIN.*

Jauna ona da, bere errukia betikoa da,  
bere leialtasuna gizaldiz gizaldi.  
**Eskerrak emiozuz Jaunari, ona da-ta,**  
Haren maitasuna betikoa da-ta.

*GUREKIN EGON, GUREKIN, JAUNA,  
ORAINDIK DAIGUN HITZ EGIN;  
HELDU DA GAUA ILUN-ILUNA.  
GUREKIN EGON, GUREKIN.*

**Jauna neugaz dago; ez naz bildur;**  
Gizonak ze kalte egin ahal deust?  
Jauna da nre indar eta adore,  
Bera da nire salbamen.



*GUREKIN EGON, GUREKIN, JAUNA,  
ORAINDIK DAIGUN HITZ EGIN;  
HELDU DA GAUA ILUN-ILUN,  
GUREKIN EGON, GUREKIN.*

**Jauna da nire argi ta salbamen,**  
Noren bildur izan naiteke?  
Jauna da nire biziaren babes,  
nork niri ikara eragin?  
Nire bihotzean entzun dot: “Bilatu nire arpegia”  
Zure arpegia bilatuko dot, Jauna,  
ez egidazu ezkutatu zure arpegia.

*GUREKIN EGIN, GUREKIN, JAUNA,  
ORAINDIK DAIGUN HIZ EGIN;  
HELDU DA GAUA ILUN-ILUNA,  
GUREKIN EGON, GUREKIN.*

**Ikusi eta txastatu egizue zein ona dan Jauna.**  
Zorionekoa Beragan babesten dana.  
Zorionekoak Zugan indarra aurkitzen dabenak,  
euren erromes-bidea antolatzean.

*GUREKIN EGON, GUREKIN, JAUNA,*

**ENE JAINKO, NI ONIK ATERA**  
(70)

**Jauna, Zu gugaz  
bazaitugu,  
nok gu izutu,  
nok gu bildurtu?**

Ene Jainko, ni onik atera.  
Jauna, zatoz laster ni laguntzera.  
**Aldendu nigandik kaliza hau, ahal bada,**  
eta nire ahotik urrundu garraztasun hau.


Askatu naizu sufrimentutik,  
bildurretatik, hondamentik,  
apurka hondatzen doan bizitzatik,  
eta heriotz-zulo ilunetik.


**Jauna, Zu gugaz  
bazaitugu,  
nok gu izutu,  
nok bildurtu?**

Ontasun hutsa zaran, Aita, zatoz!  
Salbau nagizu neure eta besteen txarkeritik.  
Ene Jainko, zatoz!  
Emoidazu zure indarra,  
**erakutsi egidazu sufritzen,**  
eta neure zoritxarrei aurre egiten.

Ezarri egizu sugarrez nire bihotzean  
gehiago-ezineko zure maitasunaren ezaugarria.  
Inoiz gorrotoak bihotzean ikututen banau,  
atera egizu sustarretik;  
eta ezarri nire barruan  
zeurearen antzeko bihotz maitekor bat.

**Jauna, Zu gugaz  
bazaitugu,  
nor gu izutu,  
nok bildurtu?**






Gorrotoa maitasun bihurtzen dozun Jauna,  
iluntasuna, argi bihurtzen dozuna:  
Zatoz, eta kendu nigandik gatx guztiak.  
**Emoidazu zure bakea, Jauna,**  
nire estularria bihurtu egizu zure seme-alaben alaitasun.

**Poztu eta alaitu beitez Zugan**  
zure bila dabiltzanak;  
“Gora Jainkoa” esan begie beti  
zure salbamera gura dabenak.

**Jauna, Zu gugaz**  
**bazaitugu,**  
**nok gu izutu,**  
**nok bildurtu?**

Gaur hain behartsu eta gizagaixo sentitzen naz!  
Ene Jainko, lagundu egidazu,  
**Zu zara, bada, nire indar, nire Salbatzaile.**  
Azkar, Jauna, ez berandutu!

**Jauna, Zu gugaz**  
**bazaitugu,**  
**nok gu izutu,**  
**nok bildurtu?**



ERRUKI-ESKE SALMOA  
(50)



**Zu zara, Nazareteko Jesus,  
guganako Aitaren errukia;**  
Aitak zure maitasunaren bitartez  
ixuri dau bere bihotza gure lurrera,  
eta bere neurribako samurtasunez  
gure pekatua garbitu ahal izan dau.

**Zeharo garbitu gagizuz, Jauna,**  
gure txarkeri eta txatxarkerietatik,  
eta gure bizitzak zikinduten dituan  
zikinetik gabitu gagizuz.

Guk autortzen dogu,  
Nazareteko Jesus,  
geure burua pekatarizat;  
**gure joko okerra  
begi-aurrean dogu.**

**Pekatu egin dogu**  
**zure neurribako maitasunaren aurka,**  
Aitaren samurtasunaren aurka.  
Hau egoera mingarria, lotsagarria,  
geuk egindako okerkeriz!

Zure garbitasunaren  
eta santutasunaren aurrean,  
**Jesus Adiskide,**  
**ez daukagu nora jo.**

Zure Aitaren bihotz onaren aurrean,  
larri sentitzen gara.  
**Jesus Gure Anaia, makalak gara**  
eta pekatua gure haragiari erantsita dago.

Zu santua zara, garbia zara,  
eta bihotz zuzena maite dozu;  
**ulertzen dozuz gure hutsegiteak  
eta jausteak.**  
Argitu gagizuz.

Zure maitasunezko ur ziprirtinez busti  
eta garbituko gara;  
**garbitu gagizuz zure kurutzeko odolez**  
eta edurra baino zuriago geldituko gara.

Begira gure samintasuna:  
**bihurtu eiguzuz poza eta alaitasuna,**  
eta pozez bixkortu daitezala  
gure bihotz nekatuak.

Ez egizuz gogotara ekarri gure hutsegiteak,  
**Zu, Jesús, ona zara-ta;**  
eta atera gagizuz egunero  
ilunpetako sarean jaustetik.



**Sortu gugan, Jauna,**  
**bihotz garbi eta leiala;**  
sendotu gagizuz barrutik  
zure Espirituaren indarrez.  
Garbitu, arren, gure bihotzak,  
zure arpegia ikusi ahal daigun.

**Bihurtu eiguzu errukiz**  
**zure salbamenaren poza,**  
eta zabaldu gure bihotzak  
mugabako maitasunera.

Zuk gugan egin dozuna lau haizetara  
iragarri nahi dogu,  
**zure besarteko gozotasuna dastatzera**  
hurreratu gaitezcan guztiok

**Askatu gagizuz, Jesus Jauna,**  
**biolentziatik eta geukeritik,**  
eta zure parkamen harrigarria  
zabaltzeko adore emoiguzu.

**Edegi gure begiak,**  
**zabaldu gure eskuak**  
eta gure bihotza  
adiskidetasunera eta bakera,  
bai Zugaz eta bai anai-arreben artean.

**Zure Aitaren eztegu-mahaian**  
**partekide egin gagizuz,**  
eta mosuz eta besarkadaz onartuak  
eta maitatuak sentiduten gara.

Zure parkamen-besarkadaz  
gure pekatuak parkatzean,  
**bai ona zareala, Jauna!**  
Zure Aitarenean etxeko egin gaituzu,  
familia bat eta berekoak.

**Zure errukiari esker,**  
**birjaio gara bizi barrira;**  
zure parkamenez itzartu dozuz  
gugan lotan egon diran  
Erreinuko dohaiak.

**Hur-hurreko izan zakiguz,**  
geure ondoko adiskide, zintzoa,  
geuk sarri huts eginarren.  
Eta dei eiguzu barrira,  
bidean jausten bagara ere,  
jagi gaitezana.

**Bai, Jesus Adiskide,**  
barrira ere Aita bizi dan etxera  
bihurtuko gara.  
Bai, Jesus Adiskide,  
guztiok batera  
ospatuko dogun jaialdi barrira.








**ERRUKI, JAUNA, EZEBEZA GARA-TA  
(90)**

Jauna, gure igesleku Zu izan zara  
gizalditik gizaldira.  
**Zuk ez dakizu zer dan denporearen pixua,**  
adinaren arrakaladak  
eta zahartzaroak astiro eta maitekiro  
gero eta estuago ezarten deuskun gerrikoa.



Itsasoa eta lurbira izan baino lehen,  
mendiak sortu baino lehenago,  
argia eta izarrak zabaldu aurretik,  
munduko zokondo misteriotsuak baino lehenago,  
**ZU BAZINAN.**

Mila urte Zuretzat  
begi-bristada bat baino hutsago,  
**izatearen betetasuna dozu Zeugan;**  
ez erlojurik, ez ordurik,  
ez ezetariko neurririk ez dozu;  
ez dozu begira inungo begirik, ez ispilurik.

Gu, gizakiok, ostera, gauza hutsa gara,  
zelaietako bedarra lez:  
goizean lore dotore,  
arratsaldean igar eta simur;  
**eta gure bizitza joan doa,**  
eta zizpuru baten hustuten da.




Hirugei urte bizi,  
nahiz hirurogeita hamar,  
larogeita hamar hartuta ere,  
**atzerantza begiratu eta, igesi doaz,**  
igesi doan txoriaren hegazkadea lez;  
handik gomutea bakarrik geratzen da,  
eta argi-izpitxoren bat hegoetan,  
gehienak malkoz eta nekez seinalatuak.

**Erakutsi eiguzu, Jauna,**  
**igesi doan denporeari bihotz onez begiratzen.**  
Eta bihurtu zaitez gugana,  
denporarik ez dozun Jainko Hori,  
zure betiko maitasun-aulkitik.

Erruki zaitez, Jauna, gu garean hutsagaz.  
Goiz-goizetik biziz bete gaizuz.  
Zure beso samurrez berotu gure bihotza.  
Zure besarkadaz gure izate osoa birbiztu.  
**Emoiguzu zure maitezko**  
**eta pozezko eternitatea.**


**Begira zure Seme hil eta**  
**berbiztuaren arpegiari,**  
aintzaz eta bizi barriz beteari.  
Gogora ekarri Haren Hitza,  
Betiko Bizitzaren agintzaria.



**ERRUKI, JAUNA, EZEBEZA GARA-TA  
(90)**

**Zurea naz ni  
eta Zu nire;  
hor zaitut, Jauna,  
hil-eta ere.**

**Jauna, gure ihesleku Zu izan zara  
gizalditik gizaldira.  
Zuk ez dakizu zer dan deporearen pixua,  
adinaren arrakaladak,  
eta zahartzaroak astiro eta maitekiro  
gero eta estuago ezarten deuskun gerrikoa.**




Itsasoa eta lurbira izan baino lehen,  
mendiak sortu baino lehenago,  
argia eta izarrak zabaldu aurretik,  
eguzkia eta ilargia jira-biraka dabiltzan zeruak baino lehenago,  
gu inguratzen gaituen zeruen zeruak izan baino lehen,  
munduko zokondo misteriotsuak baino lehenago,  
**ZU BAZINAN.**

**Zurea naz ni  
eta Zu nire;  
hor zaitut, Jauna,  
hil-eta ere.**

Mila urte Zuretzat begi-bristada bat baino hutsago,  
**izatearen betetasuna dozu Zeugan;**  
ez erlojurik, ez ordurik, ez ezetariko neurrik ez dozu;  
ez dozu begira inungo begirik, ez ispilurik.

**Gu, gizakiok, oster, gauza hutsa gara,  
zelaietako bedarra lez:  
goizean lore dotore,  
arratsaldean igar eta simur;  
eta gure bizitza joan doa,  
eta zizpuru baten hustuten da.**





**Zurea naz ni  
eta Zu nire;  
hor zaitut, Jauna,  
hil-eta ere.**

Hirugei urte bizi, nahiz hirurogeita hamar,  
larogeita hamar hartuta ere,  
**atzerantza begiratu eta, ihesi doaz,**  
ihesi doan txoriaren hegazkadea lez;  
handik gomutea geratzen da,  
eta argi-izpitxoren bat hegoetan,  
gehienak malkoz eta nekez seinalatuak.

**Erakutsi eiguzu, Jauna,  
ihesi doan denporeari bihotz onez begiratzen.**


Eta bihurtu zaitetz gugana,  
denporarik ez dozun Jainko Hori,  
zure betiko maitasun-aulkitik.

**Zurea naz ni  
eta Zu nire;  
hor zaitut, Jauna,  
hil-eta ere.**

Erruki zaitetz, Jauna, gu garean hutsagaz.  
Goiz-goizetik biziz bete gaizuz.  
Zure beso samurrez berotu gure bihotza.  
**Zure besarkadaz gure izate osoa birbiztu.**  
Emoiguzu zure maitezko eta pozezko eternitatea.

Begira zure Seme hil eta berbiztuaren arpegi  
aintzaz eta bizi barriz beteari.  
**Gogora ekarri Haren Hitza,**  
Betiko Bizitzaren agintzaria.

**Zurea naz ni  
eta Zu nire;  
hor zaitut, Jauna,  
hil-eta ere.**



**ERRUKIA ESKATZEKO SALMOA**  
(5.salmoa)

**Nire bihotza behartsu sentitzen da, Jauna,**  
lurreko hautsaren pareko,  
Jarri egizuz, Jauna, zure eskuak,  
zure bihotza nire mixerian,  
eta bete zure errukiz nire bizia.  
Zaindu nire bizia. Salbau naizu.  
Zugan dot uste on.




Niretzat zer zaran agertu nahi neuskizu:  
**Zu zara nire Jainko,**  
**nire Aita zara, Zuk maite nozu.**  
Zuri deika naukazu egun osoan.  
Hau pozgarri da,  
zure lagun izan gura dauanarentzat,  
nire konfiantza Zugan jarri dot-eta.

**Nik badakit Zu ona zarana**  
**eta parkatzen deustazuna.**  
Badakit errukitsu zarana,  
bere bihotza zure maitasunera  
eta leialtasunera edegiten dauanagaz.

Entzun egidazu.  
Adi egon zakidaz. Deika nagotzu.  
**Zeugaz egotera natortzu**  
**eta zeure ondoan gelditzera.**

Zure aurrean isilik nago,  
Zuk nire bizitzaren barri ondo dakizu-ta.  
Hemen naukazu, Jauna,  
hona nire bihotza dan modukoa:  
Zure begi zolien aurrean ezertxo ere gorde barik.  
**Hemen naukazu buztin barria lez,**  
zure esku errukitsuak noiz moldatuko zain.



Zu haundia zara.

**Erakutsi egidazu zure bidea, Jauna,**  
eta nire pausoak zure oinatzak  
jarraitu dagiezala zintzotasunez.

Nire bihotza, ezelango zatiketa barik,  
osorik zurea izan dedila.  
Bihotz-bihotzez eskerrak Zuri, Jauna, ene Jainko;  
**beti esango deutsut Zu lagun zintzoa zarala.**

Leza sakonetik salbau nozu.  
Neuk bizi izan dot zure errukia!  
Tentaldien saretik askatu nozu.  
Neuk bizi izan dot zure errukia.  
Zuk bizibarritu egin nozu, bidera ekarri.  
**Neuk bizi izan dot zure errukia!**

**Jauna, poztu egiten naz,**  
**Jainko bihozbera zaralako.**  
Bai, poztu egiten naz,  
bihotz samurreko eta  
eroapen haundiko Jainko zaralako.  
Poztu egiten naz,  
errukiz betea eta leiala zaralako.

**Zu, Jauna beti zagoz prest laguntzeko,**  
Zuk, Jauna, hartu nire lurrezko bihotza,  
eta moldatu egizu zure errukiaren haundiaren arabera..



**ESKER ONEZKO SALMOA**  
**(17.salmoa)**

29

**Maite zaitut, Jauna,**  
**neugaz zagozalako.**

Zu zara nire harkaitz sendo,  
gaztelu seguru niretzat.

**Zu zara nire salbatzaile,**  
nire harkaitz, nire gordeleku.

Zu nire indar salbatzaile,  
zaintzen nauan babes ezkutua.

Arriskuan aurkitzen nazanean,  
guzurrak eta gatxak  
inguratzen nauenean,

euren sareetan harrapatu nahirik,  
**Zuk, Jauna, nire deia entzuten dozu**  
eta nre eskariari erantzuna emoten.



Zu zara, Jauna,  
beti irauten dozun bakarra.  
Dana joan doa, dana amaitzen da,  
danak dau bere azkena.  
Zu bakarrik bizi zara betiko!  
**Horregatik, Jauna,**  
**Zugan jarri dot uste osoa.**

Zuk askatzen nozu  
arerio indartsuakandik,  
ni baino ahaltsuago diran  
kontrario guztiakandik.  
**Zu zara nire euskarri**  
**eta askatzen nozu,**  
**maite nozulako.**



**Bai haundia zarala, Jauna!**  
Zure kontu nire zuzentasuna,  
Zuk ziurtatu dozu  
nire eskuen garbitasuna,  
Zure bideak jarraitu nebazalako  
eta Zutaz fiatu.



Jauna, gogoan izan ditut  
zure aginduak,  
**eta leiala izan naz**  
eurak benetan betez.

Zinzo jokutzen dozu zintzoagaz,  
fin diharduzu finagaz,  
zuhur maltzurragaz.  
Garbi agertzen zara garbiagaz.  
**Herri zapaldua**  
**Zuk salbatzen dozu**  
eta begi-harroak apaltzen dozuz.

Zu lagun zaitudala,  
erasoten deusat arerio-taldeari.  
**Zutaz fiatuta,**  
**ezinezak menderatzen ditut.**  
Merezi dau, bai,  
zure bideetan ibiltea!

**Zuk indarrez jantzi nozu,**  
nire bidea garbi itzi deustana.  
Zu ezkutu lez zaitut,  
eskuok prestatu deustazuz burrukarako,  
nire besoak indarrez betez.

Hau dinotsut: Gora Jauna!  
Bedeinkatua nire Harkaitza!  
Hau dinotsut:  
**Goratua bedi nire Salbatzailea!**  
Nigaz hain haundia izan zaralako.


Eskerrak emoten deusudaz  
herriaren aurrean,  
beti lagunduten deustazulako  
zure Espirituaren adorez!

**Ez dot bildurrik,**  
**Zugan seguru sentitzen naz.**  
Zu zaitut nire adore eta nire indar burrukarako.  
Zu zara, Jauna, Jainko Salbatzalile.



**Eskerrak Jaunari  
Haren maitasuna  
Betikoa da-ta**

Eskerrak emoten deusudaz, Jauna, ona zaralako,  
zure maitasuna betikoa dalako.  
Neuk autortzen dot hau, Zeuk salbau nozun honek  
Neuk lez txastatu dabenakaz alkaturik autortzen dot:  
**Zure maitasuna betikoa dala.**



**Eskerrak Jaunari  
Haren maitasuna  
Betikoa da-ta**

**Eskerrak emoten deusudaz, Jauna, ona zaralako,**  
neure bakardean galdurik negoala,  
alkarterako bidea aurkitu ezinik nenbilela,  
hainbeste gauzen gose-egarri sentitzen nintzala,  
eta bizitza agortzen joiatala ikustean,  
Zuri deadar egin neutsun,  
eta Zuk nekepetik atera ninduzun.

Zuri deadar egin neutsun,  
eta **Zuk atsekabetik askatu ninduzun.**  
Eskerrak emoten deusudaz, Jauna, ona zaralako,  
zure maitasuna betikoa dalako.

**Eskerrak Jaunari,  
Haren maitasuna  
Betikoa da-ta.**

**Zuk baretu dozu nire egarri bizia,**  
nire gosea ondasunez ase dozu.  
Zuk atera nozu ilunpetik eta lainopetik,  
eten dozuz nire lokarri eta hesiak.  
Eskerrak emoten deusudaz, Jauna, ona zaralako,  
zure maitasuna betikoa dalako.



**Eskerrak Jaunari,  
Haren maitasuna  
Betikoa da-ta.**

**Zuk basamortua loretegi bihurtu dozu**  
eta sastraka zana, iturburu.  
Eskerrak emoten deutsuguz, Jauna, ona zaralako,  
zure maiatsuna betikoa dalako.

**Eskerrak Jaunari,  
Haren maitasuna  
Betikoa da-ta.**


Zuk jaurtiten dozuz haindikiak aulkitik  
eta apalak gora jasoten;  
**gose diranak ondasunez asetzen dozuz**  
eta aberatsak eskuhutsik bialtzen.

**Eskerrak Jaunari,  
Haren maitasuna  
Betikoa da-ta.**

Zuk askatu nozu, Zuk salbatu,  
**Zuk egin nozu gizaki barri,**  
Zuk emon deustazu herri bat,  
Zuk zeure indarrez jarraitzen dozu bidean,  
Zure presentziaren argiz,  
Zure hegoen kerizpean gure artean.

**Eskerrak Jaunari,  
Haren maitasuna  
Betikoa da-ta.**

Eta lur barri batera zuzentzen gaituzu,  
Eta han zure Erreinua emongo deuskuzu,  
erromes ogiz eta urez asetuz.  
Bedeinkatua Zu, gure Jainko,  
Ona zaralako, zure maitasuna betikoa dalako.



**ESKERRAK EMOTeko SALMOA**  
(39)

Zugan ipini dot, Jauna,  
nire uste ona, nire itxaropena;  
Zu samurtasunez nire gainera makurtu zara,  
eta nire deia entzun dozu  
eta nire bizitza onartu.

**Bihotz-bihotzez eskerrak Zuri!**  
**Zugan nire bizipoza!**

Zuk atera nozu, Jauna, heriotz-lezatic,  
Zuk atera nozu  
hondatuta nengoan lupetz artetik;  
**Zuk ezarri dozuz nire oinak**  
**hatx sendo gainean.**

**Zuk zuzendu dozuz**  
**nire pausoak bizi-zentzun bila.**  
Bihotz-bihotzez eskerrak Zuri!  
Zugan nire bizipoza!

Ni zoriontsu sentitzen naz  
eta abesti barri bat abestuten deusut;  
Nik goralduten zaitut  
**eta pozez goraka nago**  
**zure aurrean, Jauna.**

**Zure presentziak liluratzen nau**  
eta zure aurrean txiki sentitzen naz;  
eta gogo beroz noa zure atzetik,  
beste guzur-bideak itzita.  
Bihotz-bihotzez eskerrak Zuri!  
Zugan nire bizipoza!

**Zenbat harrigarri egin dozuzan**  
**nire bizitzan, Jauna!**  
Ez da besterik inor,  
gizonari zuk beste maitasun deusanik!



Jakitera emon gura dot  
Zuk nigaz izan dozun  
ontasuna eta samurtasuna  
Eta pozik abestu, Jesus Jauna,  
Zuk nire Historian egin dozuna.  
**Bihotz-bihotzez eskerrak zuri!**  
Zugan nire bizipoza!



**Zuk ez dozu nahi, Jauna,**  
galtzen dan gauzarik, erdipurdiko berbarik,  
Zuk ez dozu nahi egoera barri batek  
hondatzen dauan sentimenturik.

Zuk nahi dozuna, Jesus Jauna,  
bihotz zabal eta leiala da,  
Aitaren deiari “bai” esateko  
prest dagoana: **“hemen naukazu”**.  
Bihotz-bihotzez eskerrak Zuri!  
Zugan nire bizipoza!

**Gizartean zure justizia aldarrikatu nahi dot;**  
Zuk nahi dozunez,  
herrien artean solidaritza sendotu;  
Zuk behartsuei eta baztertuei deutsezun  
leialtasunaren barri emon.

Zure maitasuna eta zure egia  
txikienen artera heldu daiten ahalegindu.  
Bihotz-bihotzez eskerrak Zuri!  
**Zugan nire bizipoza!**

**Zure samurtasuna**  
**betor nire bizitzara, Jauna,**  
eta sendotu nagiala;  
zure maitasuna eta zure egia  
izan beitez nire bizileku.

**Bizi egin nahi dot, on eginez bidean ibili;**  
nire bidean bake eta erruki-urratsak itzi nahi dodaz.  
Ez egidazu itzi okerbidera joaten  
eta gitxiago Zutaz lotsatuten munduaren aurrean.  
Bihotz-bihotzez eskerrak Zuri!  
Zugan nire bizipoza!

**ESKERRAK JAUNARI  
HAREN MAITASUNA  
BETIKOA DA TA**

- . Eskerrak Jaunari **ona** da ta *HAREN MAITASUNA BETIKOA DA TA*
- Eskerrak Jaunen **Jaunari** *HAREN MAITASUNA BETIKOA DA TA*
- Eskerrak Jainkoen **Jainkoari** *HAREN MAITASUNA BETIKOA DA TA*
- .Argi-zuzi haundiak **egin** ditu
- eguzkia egunaren **zaindari** / ilargi eta izarrak gauaren **zaindari**
- . Gauza guztien **Jainko** Jauna
- Dana guretzat **egin** dau / eta gu Berarentzat **egin** gaitu
- . Jauna onbera da eta zuzena
- Jainkoa errukiorra da / beti onik ateratzen gaitu
- . Jaunak maitez **zaintzen** gaitu
- ilunpean argitzen gaitu / makalaldian sendotzen gaitu
- . Jainkoa da **gure** Aita
- Berarengan dago gure **azkena** / Bera da gure zoriona
- . Jainkoak argitzen deusku bidea
- Berak arduraz zaintzen gaitu / Beragaz ez gara bildur
- . Beti daukat Jauna begi-aurrean
- Horrek poztutzen dau nire **bihotza** / ez da inor Bera langorik
- . Nire bizia Jaunaren eskuan
- Beti nabil bere **eskutik** / betiko bere eskuan nauka
- . Aintza Jaungoiko Aitari/
- aintza Salbatzaile dogun **Semeari** / aintza Espiritu Santuari.





**EUSKARRI BILA DABILENAREN SALMOA**  
(16)

Entzun, arren, Jauna,  
zure ontasunaren laguntza  
eskatzen dauanaren bihotzaren oihua;  
zagoz erne bihotzaren erditik doakizun  
nire eskariaren oihura;  
**jarri zure belarria nire eskarira.**


**Zugan nire uste ona,**  
eta begira bihotz-hondora,  
benetan dei egiten deustuta.  
Zuk, Jauna, zuzena maite dozu,  
eta Zuri deika dagoanari adi zagoz;  
zure begiak nire bihotz-barrenera sartzen dira  
eta nire bidea argitzen dozu.

**Zuk aztertzen dozu nire bihotza;**  
Zu sartzen zara nire etxean eta bizitzan.  
Ez da zuretzat ezer ezkutukorik  
eta Zuretzat dana dago  
eguerdiko eguzki argitan.

**Zuk aproban jarten dozu nire bizia,**  
sufrirentuen bidez;  
nire maitasuna eta leialtasuna  
garbitzen dozuz urrea sutan lez.  
Nik dinotsut, Jauna, gauza guztien gainetik  
maite zaitudala bihotz osoz.

Zure Berbea bete dot  
eta Zuk eskeintzen deustazuzan  
aukerak sendotzen dabe nire uste ona;  
**zure nahia betetzeko**  
**arduraz nabil, ene Jainko,**  
gauzaina egun argia  
noiz ikusiko dagoan lez.

Nire urratsak, Jauna,  
Zuk jarritako bideetara moldatzen dira,  
Eta nire oinak, bideko neke eta guzti,  
zure bide zidorretatik dabiltz,  
nik maite dodaz zure jokabideak.  
**Ixuri egidazu zure Espiritua,**  
zure aginduetan zintzoro iraun dagidan.





Makurtu egidazu belarri hori,  
hurreratu zakidaz, zure arnasea sentitzeraino.

Aditu nire eskariak, onartu nire berbak,  
**zeuretzat hartu nagizu.**

**Eskuzabalez bedeinkatu nagizu,**  
oi Jainko ona, nire Salbatzaile;  
eta emoidazu lekutxo bat  
zure bihotz errukitsuaren ondoan.

Ez nagizu itzi, Jauna,  
nire bizitza amorruz  
inguratzen dabenen eskuetan;  
**ez itzi inguratu nagien,**  
nire izatea hondatu nahi dabenen kontura.

Nire aurka badatoz,  
**jarri zaitetz Zu nire alde, lagunik onena.**  
Ez egiezue itzi, Jauna,  
euren begi zorrotzak nire bizitzan ezarten,  
lurrera botatzeko.

Ez egiezu itzi nire bizitzara hurreratzen,  
zure dohaia da-ta.  
Arriskuren batek nire bizitzari eragiten badeutso,  
itzartu bedi nire bihotza;  
tentaldiak nire bihozeko atean deitzen dauanean,  
**Jauna, itzartu zaitetz eta onik atera nagizu.**

**Jagi zaitetz, ene Jainko,**  
**arpegi emoiozu nire arerioari,**  
bota lurpera aulkitik haundikiak.  
Gaiztoari arpegi emoiozu,  
nire oinetara sarea botaten dihardue-ta.

**Zure arpegia bilatzen dot, Jauna,**  
eta zure eskuen berotasunera hurreratzen naz;  
Zugaz seguru egotera joten dot  
eta zure ondoan ez dakidala txarrik jazo;  
zure Espirituaren indarra lagun,  
zure Etxeruntz-bidean indar  
ta adorea emon daistazan.

**Nire bihotza zure gose-egarri da;**  
**zure presentziaz ase nagizu.**  
Izan zaitetz niretzat, Jauna,  
niri egunero eusten deustan euskarri bizia,  
eta emoidazu zure Aita-bihotzez  
maitatua sentitzearen segurtasuna.



**FEDE SENDOKO BIHOTZAREN SALMOA**  
(26)

Zu zara, Jauna, nire argi eta salbamen;  
**Zu neugaz zagoz.**

Nire oinentzat argia zara,  
noren bildur izan naiteke?  
Zu zara nire bizitzaren gordeleku,  
norgaitik ikaratu?

**Zugan nire uste osoa**  
**ta zure eskuetan nire bizitza;**  
Zugaz banago, nire bihotza sendo  
eta adoretzu sentitzen da;  
nire argia zara, nire salbamena zara,  
nire babeslekua zara.

Ez naz ezeren bildur,  
nire arerioak nire aurka joarren;  
Zu nigaz zagoz; nire argi eta salbamen,  
nire gordelekua Zu zara,  
eta **zure aurrean seguru nago;**  
eurak eztropezu eginda jausten dira.  
Nok jarriko nau dardaraz, Jauna?  
Zu zagoz nigaz.

Guda gogorra sortuko balitxakit aurka  
eta dana hankaz gora bota, orduan ere, Jauna,  
Zugaz seguru nago sugarraren erdian.  
**Noren bildur, zugaz banago?**

Gauza bat eskatzen deusut, Jauna;  
gauza baten bila nabil irrikaz:  
Zure Etxean bizi, Jauna, zure ondoan jesarri,  
Zugaz egon nire bizitzako egun guztietan.  
**Zure samurtasuna**  
**txastatu nahi dot, Jauna,**  
eta maite nozula ziur-ziur egon.


Arrisku-egunean zure etxolan hartuko nozu;  
zure bizilekuan gordeko nozu ezkutuan;  
eta nire oina zure harkaitz gainean seguru egongo da.  
**Zugaz ez naz ezeren bildur;**  
zure indarra da nire defentsa eta nire salbamena.



Pozez abestu nahi dot, kanta-kantari jardun,  
Zuri goraka ekin,  
nire bizitzako Jainko Zu zara-ta,  
eta **zure eskuetan seguru sentitzen naz.**  
Entzun, arren, nire abestia, Jauna;  
onartu nire eskaria eta erantzun egidazu.

Nire bihotzak ez nau engainatzen;  
barren-barrenean ahots bat entzuten dot.  
Bai, zure arpegi bila nabil, Jauna;  
**ez egidazu ezkutatu zure arpegia.**

Zu zara nire laguntza; ez nagizu bertanbehera itzi,  
ez nagizu bakarrik itzi. **Zu zara nire laguntza:**  
zatoz niri laguntzera, Jainko nire salbamen.



Ni seguru nago, Jauna,  
nire aitak eta nire amak itziko banindue ere,  
Zuk ez deustazula hori sekula egingo,  
**Zu beti nire ondoan izango zaitudala**  
eta onartuko nozula.

Nire bihotza ez da bildur,  
Zu nigaz zoazelako eta maite nozulako.  
**Nire bihotza Zugan seguru dago**  
**ta sendo sentitzen da.**

Nik zure ontasuna ikusi nahi dot, Jauna,  
eta zure samurtauna txastatu;  
orain hemen bizi nazan lur honetan:  
**sentierazo egidazu zure maitasuna.**

Nik Zugan itxaroten dot, Jauna;  
ziur nago Zugaz nire arazoak  
urtenbide ona izango dabela;  
nik Zugan itxaroten dot, Jauna,  
eta **ziur nago ez nozula egundo bakarrik itziko.**  
Zuk bihotzera berba eginaz dinostazu:

**Izan bihotz! Izan adore!**  
**Eutsi sendo sinismenari!**  
Zuk bihotzera berba eginaz dinostazu:  
Izan Nigan uste on!  
Nire grazi-laguntzaz fiatu!  
Nire bihotzak hau dinotsu, Jauna:  
Zugan sinisten dot,  
seguru nago zure ondoan.

## GOGOA JASOTZEKO SALMOA

Nire begiak mendietara jasoten dodaz:

Nundik niri laguntza?

Nire eskuak jasoten dodaz gauez:

Nundik niri laguntza?

**Bakardadean jasoten dot nire bihotza:**

Nundik niri laguntza?

Jaungandik nire laguntza,  
zeru-lurak egin dituan Harengandik.

**Nire porrota isilean jasoten dot:**

Nundik niri laguntza?

Barriren barri hasi-beharra isilean jasoten dot:

Nundik niri laguntza?

**Nire arazo eta nekeak jasoten dodaz:**

Nundik niri laguntza?

Jaunagandik nire laguntza,  
Zeru-lurak egin dituan Harengandik.

**Nire zentzunbako bizikerea jasoten dot:**

Nundik niri laguntza?

Ezinaren kontra egon-beharra jasoten dot:

Nundik niri laguntza?

Ene Jainko, ez itzi nire oinei kilikolo egiten,  
egundo lotan ez zagozan Jainko Horrek.


**Ene Jainko, ez itzi barrero lupetzetan jausten,**  
Egundo ez lorik, ez atsedetik ez dozun Jainko Horrek.


Ene Jainko,

**ez itzi zentzun barik nire bizia luzatzen,**  
nire izatearen errazoi zaran Jainko Horrek.

**Ene Jainko, gorde naizu zure kerizpean,**  
bidez nekaturik natortzu-eta.

Ene Jainko, zure kerizpean gorde naizu,  
Nire bihotza urbako lur lehorra lez dagota.





**Jauna, gatx guztitik zaindu naizu,**  
Bizitzaren hondarreko narrazkerian bizitzen  
gogaiturik nago-ta.

Jauna, gatx guztitik zaindu naizu,  
bizitza ez dan bizitza  
bizitzen nekaturik nago-ta.

Zaindu nire bizia  
eta Biziaren mailara jaso egizu, arren.

**Zaindu nire bizia**  
**eta ezarri egiozuz hegoak,**  
jauspidetik iges egin dagian.  
Zaindu nire sartu-urtenak,

**Barrero hasteko eta hobe izateko**  
**gogoa izan dagidan.**  
Zugana jasoten dodaz nire begiak, Jauna,  
uste osoz laguntza  
Zugandik itxaroten dot-eta.

**Itsas-mendiak  
eta guztiak  
beti Jaunari  
ekin kantari.**

Goraldtu Jauna kalean, zuen etxeetan.  
Goraldtu, goraldtu egizue beti eta nunahi.

Goraldtu egizue zelaietan, mendi-gailurretan,  
itsas zabalean, bere haunditasun-durundian.

**Itsas-mendiak  
eta guztiak,  
beti Jaunari  
ekin kantari.**


Goraldtu Jauna berbaz eta doinu ederrez,  
goraldtu zuen barrengo isiltasunean.


Goraldtu egizue eguna urratzean,  
egunsentian, eguerdiko eguzki galdatan,  
arratsaldeko ordu baketsuetan,  
goraldtu gau ilunaren isilean.

**Itsas-mendiak  
eta guztiak,  
beti Jaunari  
ekin kantari.**

Goraldtu egizue astegun-igandetan,  
urtarriletik abendura,  
erloju guztien tangadetan,  
ordu eta egutegi guztien gainetik.

Goraldtu egizue Jauna  
lanean, jardunean.  
Eskeindu Berari besoetako indarra  
eta buru-lanaren nekea.





**Itsas-mendiak  
eta guztiak  
beti Jaunari  
ekin kantari.**

Goraldu Jauna, ospatu jaiegunetan,  
goraldu lanpeko burpilean lotuta,  
sufrirentuetan, larritasunetan,  
gizatasunaren mugapean katigu.


Abestu bere izena maitsunez eta pozez.  
Abestu umeen irribarre-artean,  
gazteen sendotasunean,  
helduen bake neketsuan.  
Abestu zaharren zimur artean,  
noiz amatauko dagozan euren begien argitan.

**Itsas-mendiak  
eta guztiak  
beti Jaunari  
ekin kantari.**

Abestu urarekin eta aidearekin,  
abestu txorien txorrotxioekin,  
haizearen txistu zorrotzarekin,  
trumoi-danbarrada hotsarekin.

Abestu Jaunari izadi isilaren ikuspegi gozoan,  
bakardadeko soinu isil alaitsuan,

**Itsas-mendiak  
eta guztiak,  
beti Jaunari  
ekin kantari.**



Aska eta ekin soinugailu txiki eta haundi,  
eta goraldu Jauna izadi osoarekin batean,  
gizakien arnasaldi bakoitzean eta guztietan.

Bedeinkatu Jauna nunahi eta beti,  
danak, danetan, gogo betean,  
goraldu danen izenean Jauna.

**GORDE NAGIZU ZURE BEGI-NINIA LEZ**  
(16.salmoa)



**Gorde nagizu zure begi-ninia lez,**  
bihotzez eskatzen deutsut, Aita, Jesusen izenean;  
ez daukat ezelango eskubiderik,  
ezta begiratu deistazun ere;  
seme-alaba nozulako da bakarrik,  
eta seme-alabak gurasoen begi-niniak lez dira.

**. Ezkutatu nagizu gogor erasoten nauenakandik,**  
haundi-maundikeriz berba egiten dabenakandik,  
dana apurtu eta danetan irabazi nahi dabenakandik,  
zurikerietan eta guzurretan diharduenakandik;  
nik eztropezu egiterakoan,  
begi-keinuka eta burlazahar dabiltzanakandik.





. **Gorde nagizu, arren, maite nauanakandik,**  
baina beti euren erara, hegoak ebagiz.

. **Nik zure begitartea ikusi nahi dot,**  
baina ez neuk neure zuzentasunez merezita,  
zure ontasunak erakarrita baino.

Ez naitortzu, Jauna, nire atxakien itxurapean,  
Zuk errukiz ulertzen eta onartzen nozulako baino;  
ez deusudaz nire eskubideak eta eskabideak agertzen,  
**zure erruki hutsera joten dot.**

. **Zure aurrera naitortzu, ez neu nazanagaitik,**  
Jesukristoren izenean baino;  
Jesusen Odol eder baliotsua hartuta,  
Jesukristo neure Jaunagana joten dot!

. **Eta itzartutean, zure arpegiz aseko naz,**  
horrexen bila nenbilen arpegi guztietan  
eta poz-iturri guztietan.  
Eta atsedean hartzean,  
*alaitasun betea izango dot zure aurrean,*  
*betiko atseginak zure eskumaldean*



**GORESPENEZKO SALMOA**  
(147.salmoa)

**Aleluia! Gora Zu, Jauna!**

Gora Zu, nire Jaun, zeru goienean,  
Gora Zu, nire Jaun, itsaso sakonean.  
Gora Zu, nire Jaun, aingeruen taldeak.

**Gora Zu,**  
**eguzki anaiak eta iretargi arrebak.**

Gora Zu, izar dizdizariak,  
gora zu,  
zeru sabai zabalean eta itsas sakonean.  
Aleluia! Aintza Zuri, Jauna!

**Aleluia! Aintza Zuri, Jauna!**

Gora Zu, nire Jaun, dan guztia  
zure maitasunaren lana dalako.  
Gora Zu, nire Jaun,  
gauza guztietan ezarri dozuzalako,  
gizonagandik hur-hurrean  
zagozan Horren ezaugarriak.

**Gora Zu, nire Jaun,**

paradisu bat atondu dozulako,  
gizona bakez eta alai bizi dedin.  
Aleluia! Aintza Zuri, Jauna!

**Aleluia! Aintza Zuri, Jauna!**

Goratu zagiezala herrietako buruzagiak,  
eta lurbirako herrialde guztiak,  
gazte eta nagusi, umeakaz nahaste.



Goratu zagiezala, bai,  
**Zeu zara-ta biziaren sorrera,**  
izate osoaren gidari eta helmuga.  
Goratua Zu, nire Jaun,  
dan izen haundi bakarra.  
Aleluia! Aintza Zuri, Jauna!

**Aleluia! Aintza Zuri, Jauna!**  
Goratua izan zaitez, ene Jaun,  
zure zerbitzari guztiekaz.  
Goratua Zu, ene Jaun, orain eta beti.  
Goratua Zu, ene Jaun, Zuri aintza, aleluia!



GURUTZILTZATUAREN SALMOA  
(21)

**Ene Jainko! Ene Jainko!**  
**Zergaitik itzi nozu eskutik?**

Oihuka naukazu, eta Zu urrun sentitzen zaitut.

Oihuka naukazu, Jainko,  
eta ez dozu berbatxo bat ere niretzat.

Gaez deika naukazu,  
eta nire ahotsa durundi hutsean galtzen da.

Oihuka naukazu gogo beroz,  
eta **ez deustazu jaramonik egiten, ene Jainko!**

Behin baino gehiagotan esan deuste

Zugan ustea jarri dabela

eta ez deutsezula huts egin.

Nik ez dakit holangorik ezer!

Konfiantza kontu hori niretzat hutsa da.

Dei eta dei egiten baino ez dakit, ene Jainko,  
eta neure deadar hutsagaz gelditzen naz bakarrik.

**Lurreko har bat sentitzen naz, eta ez gizaki,**

jentearen barregarri, askorentzat lotsagarri;

eta danak neure lepotik

irri eta barre egiten dabela begitantzen jat,

Zugan uste osoa jarri dodala-ta, laguntza eske.

Zuk deitu ninduzun bizitzara,  
zure eskuetan gorde ninduzun, ezer sentidu ezarren.

Zu zara nire Jainko.

**Ez zaitetz urrun gelditu, ene Jainko,**

arriskua hur dago-ta, eta inor ez laguntzeko.

Indar gaiztoz inguratuta sentitzen naz.

Bihotza argizari lez daukat,  
neure erraietan urturik.

Nire eztatia urbako lurra lez daukat.

Nire mihina aho-sabaiari erantzita.

**Heriotz-hautsetan zapalduta sentitzen naz.**

Neure burua bilusik,  
indarge eta hutsik ikusten dot.



**Bere lepotik danak  
barre egiten deutesen paiaso bat naz.**


Zu, Jauna, nire indar zaitut, ez zakidaz urrun gelditu,  
zatoz laster ni laguntzera.

Zaindu nire bizia,  
nire bizi bakarra, eta salbau egizu

Ikusi ezarren, zure eskutik itzita sentiduarren,  
tentaldian bakarrik sentiduarren,  
tente irauteko indarrik euki ezarren,  
nigan tentaldia neu baino indartsuago eginarren,

**Zuk jarraituko dozu  
nire uste osozko Jainko izaten.**

Amaren besoetan bere burua  
izten dauan umea lez izango naz Zuretzat.



Eta danei iragarriko deutset  
Zu zarala errukia, errukarri honentzat,  
Zu zarala bihozbera  
apurtuta daukadan nire bizitzarentzat,  
Zu zarala nire Salbatzaile gaueko ilunpean.  
**Goresten zaitut, zure arpegia ikusi ezarren.**

Neure kautan dinot:

**Ez egizu egundo adorea galdu!**

Zure aurrean naukazu,


bizia emon deistazun itxaroten.

Zure lagun izango nozu eta jarraituko deutsut,  
zure leialtasunean nik uste osoa jarrita.

**Zure eskuetatik bizibarrituta urtengo dot,**  
eta nire bihotzari, arranoari lez,  
hegoak urtengo jakoz.

Eta nire askatasunean abestuko deutsut:  
Atsekabearen erdian jo neban Jaunagana,  
eta Berak askatu ninduan.


Jauna, zu zara nire Jainko, Zu nire salbatzaile,  
Zu zara gizonagandik hur-hurkoa,  
**Jainko, Zu bere Laguna.**



Zuk babesten nozu,  
**Zuk zaintzen nozu Aita-hegoakaz;**  
zure ontasun eta samurtasunezko kerizpean  
atseden hartzen dot.

Nik dinotsut, Jauna:  
zu zara nire gordeleku eta sendotasuna;  
nire Jainko zara, nire itxaropen,  
nire gidari dan Izarra.

**Zure maitasun indartsuaren babespean  
ez naz bildur;** seguru sentitzen naz.  
Zure oihal denda azpian, Jauna,  
lasai sentiten naz.  
zure ondoan, Jauna, nire bizitza seguru dago.



Zuk zeure eskuz babesten nozu,  
Zuk zeure samurtasunez zaintzen nozu.  
Tentaldiak nire atean deituarren,  
eta leihoan joarren,  
aprobaldiak eta krisialdiak  
nire bidea ilunduarren,  
ni seguru nago, Jauna,  
**zure graziak ez deust huts egingo.**

**Bere hegapean txitak  
hartzen dituan oiloaren antzera,**  
amaren besoetan beroa eta laguntza  
aurkitzen dituan umea lez,  
holantxe doa zure bila nire arimea,  
ene Jainko, goizetik arratsaldera arte.

**Zure hegapean dot nire gordelekua,**  
hantxe nire defentsa;  
Zu nire gaztelu, harkaitz sendo olatuen aurka;  
Zu nire babeski eta armadura  
inguratzen nauan Gaiztoaren aurka,  
Zu nire salbamena, nire itxaropena aldioro.

**Zugaz, Jauna, ez naz gaueko ikarearen bildur;**  
Zugaz, Jauna, nire aurka egunez datorren harriak  
ez deust minik egingo;  
Zugaz, Jauna, ez naz ezkutuan  
zabaltzen doan gatxaren bildur;  
**Zugaz ez dago ezinezkorik** gogorreanean ere,  
Zure grazi eta ontasuna neugaz dagoz-eta.

Zuk naroazu zure eskuetan,  
nire oinak eztropezu egin ez dagian;  
Zuk zuzentzen dozuz nire pausuak  
eta zelaitzen dozu nire bide-zidorra;  
Zu zara gauez bidea argitzen deustazun argia:  
**Zugaz nire bihotzak osorik irauten dau.**

Nik Zuri oratzen deustut, Jauna, ene Jainkoa:  
Askatu nagizu!  
Zuk ezagutzen dozu nire makaltasuna:  
oinarri sendoaren gainean ezarri nagizu!  
**Zagoz beti nire ondoan:**  
**ez nagizu bakarrik itzi!**  
Zu nire salbamena, Jauna,  
izan beti nire indar bixkorgarri!

**Zure hegoen kerizpean**  
**ipinten dot nire bizia, Jauna.**  
Zure samurtasunaren eta sendotasunaren  
aterpean gordeten naz.  
Zaindu eta gorde nagizu;  
indar zaitudan Hori, zagoz nire ondoan;  
danen gainetik, Jauna,  
nik beti zure seme-alaba izan nahi dot.



HURTASUNEZKO SALMOA  
(90.salmoa)

Zu nire bizitzan aurrez-aurre zaukadaz, Jauna,  
eta pozez blai dot bihotza, Aita zarala jakitean.  
Zu zara nire igesleku eta gaztelu.  
Ene Jainko, Zugan nago sendo.


Zuk onik ateraten nozu aproba-egunean,  
**Zure ontasunez zaintzen nozu,**  
zure hegapean gordeten nozu.  
Zure indarra da nire ezkutua eta armadura.

Ez naz gau-ilunpearen bildur,  
ez eguerdiko eguzki beroaren bildur.  
**Ziur nago, Zuk lagunduta,**  
nire arerioak lur joko dabela,  
eta neuk urtengo dodala irabazle.

Zu egin zaitut nire igesleku,  
Zu hartu zaitut, Jauna, nire zaintzailatzat.  
Zu lagun zaitudala,  
**zoritxarra ez da sartuko nire etxean,**  
Nire bide guztietan Zuk zaintzen nozu-ta.

Zure eskuen babesean zainduko nozu,  
maite nozula badakit-eta,  
nire oinak eztropezu egin dagien ez dozu itziko.  
**Neure helmugaruntz nekatu barik jarraituko dot,**  
Zu Zeu nire sari izango zaitudala ziur nago-ta.

Zuk askatuko nozu, maite nozula badakit-eta.  
Bizilaguntzat hartzen nozulako, zainduko nozu.  
**Zugana uste osoz jo neike laguntza-eske,**  
badakidalako beti entzuten nozula.





maite nozula nire bihotzak sarri ahaztuarren.


**Zu beti neugaz zagoz,**  
nire bihotzak sarri huts egiten badeutsu ere,  
barrero hasteko gogoz.  
Zu beti neugaz zagoz,  
nire bihotzak hau sarri sentidu ezarren.

**Jauna, nire bizia zure gauzea da,**  
zure eskuetan ipini dot.

Nire bihotzak ez begi bildurrik izan,  
nahizta bidea latza izan.

Zu neugaz zagoz,  
eta nire bizia zure gauzea da.





**ITXAROTEN DAGOANAREN SALMOA**  
(30.salmoa)


**Bila eta bila nabil, Jauna,**  
eta Zugan aurkitu dot itxaropena.  
Zuzena eta leiala zaran Horrek,  
salbau nagizu.  
Zure izenaren aintzarako:  
Zuzendu eta gidatu nagizu.

Zu nire lagun zara,  
atera nagizu ezkutuan jarri deusten saretik.  
**Zure eskuetan jarten dot nire bizia:**  
Zuk, Jauna, Jainko leial horrek,  
lagunduko deustazu!

**Zugaz fiatzen naz:**  
poztu eta alaituko naz zure maitasunaz.  
Zu zara nire biziaren zaintzaile,  
atsekabeak eta arriskuak inguratzen nauenean.  
Emoidazu aukera, urtenbidea aurkitu dagidan.

Entzun egidazu, Jauna:  
larri nago, nire bizitza azkenetan dago,  
isilean negarrez nago,  
**indarrak agortu jataz,**  
hazurretarainoko minez nago.

Entzun egidazu, Jauna:  
irriz ta barrez daukadaz;  
Neure lepotik barrez, beste barik,  
hor konpon eginaz; ez ezagun bat bainintz.  
**Gauzeztan ontzi baztatu bat sentitzen naz.**  
Baina nik Zugan dot uste on, Jauna;  
Hau dinotsut: "Zu zara nire Jainko"



Zure eskuetan dago nire joan-etorria,  
Zure eskuetan nire atsekabeak.  
Erakutsi egidazu zure arpegi distiratsua,  
Eta **salbau nagizu zure leialtasunez**  
Jauna, ez nadila lotsa izan Zuri dei egiteaz.

Bai haundi, Jauna, zure ontasuna,  
zintzo jatzuzanentzat!  
**Zuk nire bizia**  
**zure bihotz-ondoan gordeten dozu,**  
eta zure ezkutu horretatik  
berba egiten deustazu,  
betiko lagunzahar lez.

**Bedeinkatua Zu, Jauna,**  
nire alde ezin esan ahalakoak egin dozuzana!  
Nire bihotza kantari dago:  
“Gora bihotza, bixkortu zaiteze,  
Jaunagan uste on dozuenok!”



1

Jauna dot argi eta osasun;  
eta nori bildur izan?  
Jainkoa badot babes-lekua  
zelan bizi bildurrean?  
Iruntzi nahirik datozanean  
jota zapalduz lurrean,  
Zuk lagunduta, danak jo ta behera,  
begoz altzau ezinean.



2

Nahizta gudari talde osoa  
ipini neure aurrean,  
ez naz izango ikara bildur  
bakea nik bihotzean.  
Etsaiak hasten badira ere  
burruka gogorrean,  
orduana eta sendoago ni  
neure itxaropenean.

3

Hauxe bakarrik eskatzen deutsot  
neure Jaungoiko Jaunari:  
Horrexen bila nabil ni eta  
eskean nago Berari:  
Haren etxean bizi nadila,  
- hori dodanez pozgarri-  
bizitza horren gozamenean  
pozkariotan kantari.

4

Hak zainduko nau, beti bezela,  
arriskurik dagoenean:  
jausi ez nadin, gizagaixo hau!  
etsai maltzurren sarean.  
Gorde-lekuan ezkutaturik  
bere txabol babesean,  
sendo ta tinko ipiniko nau  
harkaitzaren gailurrean.

5

horrela, etsai danen gainetik  
jarriko naz garailari:  
Eta ondoren, neurri gabean,  
emongo deutsot pozari.  
Txabol santuan eskeiniko dot  
eskerronezko opari,  
poz-jarioan kantu alaiak  
abestuaz Jainkoari.

6

Errukitsua zaranez, Jauna,  
entzun eizu nire deia,  
nire bihotzak bilatu daian  
beti zure onginahia.  
Zure aurrean bizitzea da  
nire pozaren sustraia,  
eta nigandik ez eizu, arren,  
ezkutatu arpegia.

7

Ez nagizula zapuztu ere  
betirako hasarrean,  
laguntzailerik gabe ez nadin  
geratu neure bidean.  
Zure eskutik izten banozu,  
zapuztuta baztarrean,  
etsaiak laster lotuko nabe  
amorruez euren menpean.



8

Nire guraso, aita ta amak  
hor itziko banindue,  
Zugana, Jauna, itxaropenez  
laster batuko nintzake.  
Zeuk erakutsi eidazuz, Jauna,  
zure asmo eta lege,  
zure bidetik ibili nadin  
etsaien bildurrik gabe.



ITXAROTEN IKASTEKO SALMOA  
(36)

**Jauna, sarri ez dot argi ikusten;**  
gaiztakeriak gehiago egiten ete deuskun.  
Jauna, joko zikin eta okerkeriz  
inguraturik sentitzen naz.  
Begibistan ikusten dot indartsuaren legea,  
basapiztien artean lez.

Eta behin baino gehiagotan  
**dana goitik behera doala begitanduten jat.**  
Zuk, ostera, dinostazu:  
gaiztakeria lasto igarra lez bertan behera galtzen dala,  
okerra bedar sikua lez igartu egiten dala.  
Hau zure Berbea da.

Nik, Jauna, Zugan dot uste on,  
eta onaren alde jokatzekotan nago;  
**lurrean bizia emoten bizi nahi dot,**  
eta bakegile lez hazi; Zugan jarten dodaz  
nire bizitzako ardura nagusiak  
eta seguru nago, Jauna,  
nire bihotza Zuk asebeteko dozula.

**Nire zoria zure eskuetan dago, Jauna,**  
eta ez joko aldrebesean,  
zure zuzentasunaz  
zuzenduko nozulakoan nago;  
ziur nago, zure legeak zuzenduko dauala  
beti nire bidea.

**Ni bakean bizi naz, zure ondoan, Jauna,**  
eta Zugan dot uste on;  
nire bihotza ez dedila nahastu  
guzurrez goruntz egiten dabenakaz.  
Ziur nago, eroapenez biziaren  
jabe egingo nazala.

Ziur nago, Jauna,  
txiki apalak lurraz jabetuko dirala,  
eta anai-arreba lez,  
bake haundiz biziko dirala.  
**Halan da zure Berbea.**  
Jauna, gizon zuzena,  
lagun gaiztoz inguraturik badago ere,  
Zuk ondo dakizu, Jauna,  
txarrari onak egin deutsola gehiago.



Ez itzi, arren, Jauna, errukarria eta behartsua  
indartsuen ostikopean;  
ez itzi, Jauna, jokabide zuzeneko gizona hondatuten.

**Zuk eusten deutsezu goian**  
**Zugan itxaroten dabenen beso nekatuei,**  
zapaltzailearen asmoak lurjoten doazen bitartean.

Zuk ezagutzen dozu, Jauna,  
gizon zuzen eta zintzoaren bihotza,  
eta zeure ondoan atonduten deutsozu  
ondasuna betiko mahaiian,

**Zu egongo zara**  
**behartsuaren ondoan zoritxar aldian**  
Eta urritasunean Zuk beteko deutsozuz  
eskuak ondasunez.

**Jauna, Zuk bedeinkazen dozuz bizitzan**  
**Zugaz kontatzen dabena,**  
eta Zugana hurreratzen ez diranei ere  
itxaron egiten deutsezu,  
euren bihotz gogor eta itsuak  
bigundu eta bihurtu daitezana.

**Zuk gidatzen dozuz gizonaren pausoak, Jauna,**  
une guztietan beso sendoz;  
Eta gizona jaustean,  
Zuk luzatzen deutsozu esku salbatzailea.

Jauna, nire bihotzak txarretik  
alde egin dagiala eta on egin;  
**Zure ondoan jarraitu dagiala**  
eta beti zure lagunena aldrakoa izan dedila.

Jauna, nik Zugan itxaroten dot  
eta zure bideko legea betetzen;  
**ni zure ondasunen zain naukazu,**  
Zeuk esan dozunez;  
gizon gaiztoa deslai eta  
harro badabil ere, Jauna,  
gaueko ekatxak zuhaitza lez,  
jota behera botako dabe.

**Emoidazu bihotz oso bat,**  
**bihotz gozo eta apal bat,**  
eta anai-arreben erdian  
beti bake-gizon izan nadin.



**Ene Jainko, ene Jainko,**  
**zergaitik itzi nozu eskutik?**  
Nik Zuri dei egin, eta Zuk ez entzun.  
Nik Zuri dei egin  
eta Zuk ez dozu barbarik niretzat.

Gaez deitzen deusut, eta nire dei-hotsa  
durundi-hutsean galtzen da.


**Nik Zuri dei egin,**  
**eta Zuk jaramonik ez, ene Jainko!**

Esaten dabenez,  
**Zugan ustea jartzen dauana**  
**Zuk salbatzen ei dozu.**  
Askok gogoratzen deuste:  
Zuri deadar egin, eta aske izten zenduzala.  
Errepikatzen deuste, Zugan ustea jarri ebela  
eta Zuk ez zeuntsela inoiz huts egin.

Nik ez dakit holakorik ezer!  
Konfiantza zer danik ere ez dot ulertzen.  
**Deadar egiten baino,**  
**besterik ez dakit, ene Jainko,**  
eta deadar hutsean gelditzen naz bakarrik.

**Ni har bat sentitzen naz, ez gizaki;**  
gizonen lotsakizun, eta askorentzat iguingarri;  
eta bihotzak dinost nitaz irri eta barre egiten dabela,  
Zugana joten dodalako, Zuk salbatuko nozulakoan.

**Zuk atera nozu onik bizira,**  
**zure esku-barruan gorde ninduzun,**  
Zu nire Jainko zara, ezer sentitzen ez badot ere.  
Ez egon urrun nigandik, ene Jainko,  
arriskua hur daukat, eta inor ez laguntzeko.  
Indarkerizko haize zakarrak inguratzen nau.





Sastegian botaten dan ur zikin galdua lez naz.  
Argizaria lez bihurtu jat bihotza,  
neure erraietan urtzen doalarik.

**Teila zaharra baizen lehor daukat bihotza,**  
urbako lur takarra lez.

Heriotz-hautsetan zapaldua sentitzen naz.  
**Neure burua bilosik, hutsik eta indarge sentitzen dot.**  
Guztien barregarri bihurtu dan txontxongilo bat naz.

**Zu, ostera, Jauna, nire indar, ez egon urrun;**  
**zatoz azkar laguntzera.**  
Begira nire bizia, nire bizi bakarra eta salbau egizu.  
Ikusten ez bazaitut ere,  
bertan behera itzita sentitzen banaz ere,  
arriskuaren aurrean bakarrik sentitzen banaz ere,  
tentaldiak nigan indartsu irauten badau ere.



Zuk nire Jainko izaten jarraituko dozu,  
Zugan nire uste osoa.  
**Ni, bere amaren besoetan lasai sentitzen dan**  
**umetxoa lez izango naz.**  
Eta hau izango da nire autormena  
jente guziaren aurrean:  
Alperrik galdutako nire bizitzarentzat  
Zu izan zarala erruki hutsa,  
Zu nire salbatzaile gau ilunean.

**Bedeinkatzen zaitut, zure arpegia ikusi ez arren.**  
Nik neure kautan dinot: Ez galdu inoiz adorea!  
Zure aurrean nago, bizia emon deistazun zain.  
Zure lagun izango naz  
eta zure leialtasunean fiatzen jarraituko dot.

Jauna, Zu zara nire Jainko, Zu zara nire salbatzaile,  
**Zu zara gizonaren hur-hurreko laguna.**



**Egarriz noa  
deika noa  
noiz ikusiko  
noiz Jainkoa.**

**Jainko, nire Jainko zaitut,**  
goizetik zure bila nabil.  
Zeugaitik bihurtzen naz bizitzara,  
zutik jartzen nozu, amasea emoten deustazu.

**Zeugaitik edegiten ditut leihoak,**  
Zeugaitik urten dot argira, egun barrira,  
munduko martxa barrian sartu naz.  
Eta Zeugan eta munduan sartzeko prestatzen naz  
zure dohai dan bizia Zugandik xurruptuz.

Ene Jainko, Zu zara nire Jainko,  
**nire gogoa zure egarri da,**  
Zugaitik naz bizi-egarri,  
zure egarri amasaldi bakoitzean,  
egarriz arrakalaturik dagoan lur errea lez.

**Egarriz noa  
deika noa  
noiz ikusiko  
noiz Jainkoa.**

**Pozez liluraturik naukazu begira**  
zure jauretxe santuan,  
zure aintza eta indarra ikusi nahian.  
Itsasoa bare nahiz harro, zure ispilu da;  
zugaztietan zure arrasto-bila,  
zure bihotz-taupadak sumatzen.


Nire bizi guztian bedeinkatuko zaitut, Jauna,  
nire eskuak jasoaz laguntza-eske.  
**Zure ondoan egonez aseko nozu, Jauna,**  
eztegu oparo gozoenean baino areago.  
Ezpan-ikaraz goretsiko zaitu nire ahoak.



**Egarriz noa  
deika noa,  
noiz ikusiko  
noiz Jainkoa.**

**Zein pozik gogoratzen zaitudan ohe-gainean!**

Bai, mendian, bai urian,  
bai arratsaldean, bardin atsekabeen,  
eta zure irudi dan gizakiaren arpegian,  
eta argian eta bidaietan,  
eta iluntasunean eta jai-igandetan,  
eta gau beranduan itzartzean,  
beti eta beti...



Beti zaitut gogoan,  
**beti zaitut aurrez-aurre neugan,**  
ikutu, entzun nahiz ikusten dodan guztian.


Noiznahi eta nunahi.  
Zu izan zara beti nire laguntza, ene Jainko,  
eta zure hegoen kerizpean aintzarik gozoena.

**Egarriz noa  
deika noa  
noiz ikusiko  
noiz Jainkoa.**

Nire amasea Zugana doa  
eta zure eskumeak eusten deust.  
Zuk emoten deustazu amasea eta jasoten nozu.  
**Zuk eusten deustazu eta zeuretzat hartzen nozu.**

**Egariz noa  
deika noa,  
noiz ikusiko  
noiz Jainkoa.**





1


Behin baten izan nintzan Angoston,  
 hiru-lau urte badira,  
 nire bizitzak han hartu eban  
 ehun ta larogeiko jira.  
 Bizian Gora Mogimentuak  
 egin ninduan konbida;  
 halako zerbait goxo-goxoa  
 sarturik bihotz erdira,  
 hantxe lehenengoz: "*Ene Aitatxo*"  
 esan neutson arpegira.

2

Lehengo kezka zan zelan salbatu  
 bakotxak bere burua,  
 orain bardintsu kezkatzen nau ni  
 zelan ondu ingurua.  
 Beso zabalik kurutzean Zeu  
 zaitut nire liburua:  
 malkoak xuka, zauriak senda,  
 poz bihurtu zizpurua...  
 Jesus Jauna, Zeuk esanda dakit  
 dala bide segurua.

3

Ustekabean, zelan ez dakit,  
 ez zan izan berehala,  
 baina ohartzen joan nintzan  
 neu neure jabe ez nintzala.  
 Gau ta egunez beti ondoan  
 Jaungoikoaren itzala,  
 neu hortik zehar ibili arren  
 Bera beti da leiala,  
 larri-orduan ez jat faltatzen  
 ama on baten magala.



4

Lehen uste neban zerua zala  
irabazien ordaina,  
zenbat ahalegin zelan goituko  
zeru gailurraren gaina.  
Lehenago antzean, orain ta gero  
pekatari gara baina,  
geure aldera jarrita dago  
maite gaituan artzaina;  
bere burua jokatu dau ta  
ziur nago, alajaina!

5

Lehenago Jainkoa sinisten neban  
urrun eta bildurgarri,  
handik honuntza sentitzen dot nik  
etxeko ta maitagarri.  
Zenbat pekatu? Zelan autortu?  
Lehenago ze estularri!  
Gaur nire kezka aldatu dira,  
Jauna Bera dot egarri,  
kezka-bildurrak uxatu deustaz  
ta maitasuna ezarri.

6

Benetan zara, Jesus maitea,  
bihotz eder ta haundiko,  
Zeuri zor deutsut egin zarala  
gaur nire bihotz erdiko.  
Niregan graziz egin dozuna  
agirian dot jarriko:  
Ziur nago Zuk zure eskutik  
ez nozula, ez, itziko,  
bat-bat eginda bizi gaitezan  
Zu ta ni biok betiko.



Jainko, nire Jainko,  
**zure bila nabil eta ez zaitut aurkitzen;**  
Zure egarri da nire bihotz txiki zorabiatu hau;  
zure bila nabil eta sarri engainaturik sentitzen naz,  
nire arimea lur siku, ur barik lez, sentitzen da-ta.


**Zure egarri naz;**  
zure benetako maitasun eta leialtasunaren egarri;  
Zure egarri naz:  
zure egiaren eta askatasunaren egarri;  
Zure egarri naz;  
Zure justiziaren eta fideltasunaren egarri;  
Zure egarri naz:  
zure maitasunaren eta errukiaren egarri.


**Zure bila nabil,**  
goizean eguzkiruntz joten dauan lorea lez;  
Zure bila nabil,  
itsasoraino luzatzen dan errekearen antzera;  
Zure bila nabil,  
hazten eta helduten doan hazia lez;  
Zure bila nabil,  
bere amaren babesa bilatzen dauan umearen antzera.

**Zure maitasuna, Jauna, bizia da;**  
**neure bizia baino hobea da;**  
Zure arpegiak zure graziaren  
eta egiaren distira zabaltzen dau;  
Zure eskuak zabalik dagoz  
parkamena eta harrera eskeintzeko;  
Zure izate osoa gizonarentzat salbamen-indarra da.

Ene Jainko, beratu egizu  
nire bihotza zure ontasunez;  
zure samurtasunezko euri gozoz freskatu nagizu;  
**jatsi bedi nire gainera zure maitasuna,**  
goizeko iruntza lez;  
eta zabaldu nire ezpanak,  
pozaren pozez abestu dagitsudan.

Gauetan, bakardadean eta isiltasunean nagoanean,  
Zu zaukadaz gogoan;  
Eta nire bihotza zure begiradearen argira doa;  
Zuk betetzen dozu nire gaua,  
Zu zara nire existentziaren zentzuna,  
eta **niretzat beti ondoan zaitudan adiskidea zara**






Beti zure zain nago;  
**Zugaitik nire bihotzak  
ez dau lorik egiten;**  
Zugaitik nago gauzaina lez,  
Zu noiz etorriko zain;  
Zugaitik nire bihotza  
hegaz doa zure arpegia ikusi arte;  
Zugaitik nire arimea  
Zugana estututen doa, neugan zure bila.

**Zaindu nagizu, Jauna,**  
beti deika dagozan sasijainkotxoetatik,  
azokatan lez, txutxeriak, azal-huskeriak,  
orbel zaratatsuak eskeiniz;  
askatu nagizu, Jauna,  
nire existentzia nok eroango,  
nire bizitza liluratu nahirik  
dabiltzanakandik.

Ene Jainko, nire bihotz nekatua  
zure bila dabil jota ke egarri biziz,  
bidean zehar Zugan dago-ta bakarrik erantzuna:  
Zure bila nabil,  
eskuratu nebazan hainbat gauza hutsak itziaz,  
orain niretzat ezebezak diranak;  
**Zu zara niretzat ezkutuko altxorra.**

Zure egarri naz,  
zure Ogiaren, zure bizi-Berbearen gose-egarri;  
zure egarri naz,  
**Ebanjelioko egiaren egarri;**  
zure egarri naz,  
zure Eleizeagazko batasunaren egarri;  
zure egarri naz,  
zure Espirituaren indarraren egarri.

Zure bila nabil, zure bila dabilen  
kristau alkartearen ondoan,  
zure bila nabil, neugaz bidelagun  
doazen anaiakaz batera;  
zure bila nabil, eta badakit bizirik zagozana,  
gure erdian presente, Jesus Jauna,  
**zure izenean alkartu gareanon erdian.**



Jauna, Zuk aztertzen nozu,  
Zuk barrendu eta ezagutzen nozu;  
beste inok baino gehiago dakizu nire bizitzaz;  
**Zuk, maite nozun Jauna, dana dakizu;**  
jesarten nazanean, han zaukadaz  
etzuten nazanean, han zagoz.

Nunahi nagoalarik,  
Zu beti egiten zara presente.  
Zu hemen zagoz:  
**Jainko, Zu maitasuna zara!**

Bidez-bide noala,  
burua galduta lez arin noala;  
neugandik igesi noala,  
aurkitzen ez dodanaren bila,  
ate batean eta bestean deitzen dodanean,  
eta danak ixten jatazanean,  
**hantxe zagoz presente Zu.**  
Zu hemen zagoz.

**Jainko, maitasuna zara Zu!**  
Zuk ezagutzen dozuz  
nire arimearen pentsamentuak;  
Zuk ezagutzen dozuz  
nire arimako gogo garbiak edo nahastuak.

**Zu jakinaren gainean zagoz**  
nire bizitzako tirabirak eta arazoak;  
Zuk nire samintasuna sentitzen dozu,  
ni ezkututzen ibiliarren;  
Zu samintasunaren erdian ere bazagoz.  
Zu hemen zagoz: Jainko, Zu maitasuna zara!

Krisialdiak jotzen nauanean,  
eta hondaturik sentitzen nazanean,  
nekeak kolpeatzen nauanean,  
etenda eta bakarrik atsekabez nagoanean;





**Zu han zagoz neure ondoan.**

bakardadeak eta zoritxarrak  
nire bizitzako atean joten dabenean,  
nire larritasun eta nahastearen erdian,  
**barriro ere han zagoz Zu.**

Zu hemen zagoz: Jainko, Zu maitasuna zara!

Egunsentiaren hegoetan zeruak zeharkatuz,  
itsasoaz bestekaldera joanez,  
pentsamentuak baino bixkorrago ibiliz,  
neugandik alde egingo baneu,  
lainope lodienean sartzen banaz ere,  
eta argia amatau, Zeuk ez ikusteko,  
**Han ere Zu aurrez-aurre, barriro ere Zu!**


Nora joango naz, Jauna,  
Zugandik alde eginaz, Zu ez ikusteko?  
Nora iges egin eta zure arpegiari bizkarra emon?  
Noruntzako bidea hartu,  
bidean zure aztarrenik ez aurkitzeko?  
**Neu nora joan, zu hantxe zagoz.**  
Zu hemen zagoz: Jainko, maitasuna zara Zu!

Neure buruaz topo eginez,  
eta barren sakonean aztertzen hasten banaz,  
nire pensamentuak batzen  
eta nire bihotza ikutzen badot;  
isildu eta nazan modukoa ezagutzen banaz,  
**nire izatearen sakonean Zu zagoz,**  
Zu agertzen zara.

Zu hemen zagoz: Jainko, maitasuna zara Zu!

Beti Zu, beti Zu,  
**noranahira joan eta hantxe zagoz Zu;**  
zure presentziak nire bizitza osoa  
eta dan guztia hartzen dau.

Maitasuna zaralako,  
**beti neure ondoan aurkitzen zaitut,**  
neugaz erromes. Zu hemen zagoz:  
Jainko, maitasuna zara Zu!



(102)

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
nire izatearen barren-barrenetik.  
Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
eta ez ahaztu Berak egindako hainbat mesede.

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
**Bera nigaz hain eskuzabala izan dalako.**  
Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
nire bizitza bakez asetu daualako.

**Jaunak parkatu deutzuz  
zure pekatu guztiak;**  
Garbitu egin zaitu.  
Jaunak osatu zaitu zure gatx guztietatik.

Osatu zaitu.  
Jaunak atera zaitu leza sakonetik:  
Askatu egin zaitu.  
Jaunak zutik jarri zaitu,  
zeu jausi ondoren:  
**Berreskuratu zaitu.**

**Jaunak edertuten zaitu maitasunez**  
eta samurtasunez egunez-egun.  
Jaunak zure existentzia  
ondasunez eta opariz asetzen dau.

**Jaunak zaintzen zaitu  
bere begi-ninia lez.**  
Jaunak barrizten dau  
zure bizitza egunez-egun.

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
gauzak zuzen egin dituana.  
Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
zapaldua bere burujabe egiten dauana.  
Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
bila dabilenari bere bideak agertzen deutzazana.  
**Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
zugaz harrigarriak egin dituana.**

**Jauna bihozbera eta  
errukitsua izan da gugaz.**  
Jauna hasarregatxa  
eta errukiz betea izan jatzu  
zure hutsegiteen aurrean.



**Jaunak ez deitsu gorrotorik gordeten,**  
bere aurrean egindako joko gaiztoakaitik.

Jaunak ez zaitu erabili zure  
pekatuak merezi izan daben neurrian.

**Jaunak deitsun maitasuna,**  
**zeruak baino gorago dago,**

Jaunak deitsun maitasuna, ene arima,  
itxaso sakonak baino sakonagoa da.

Jaunak deitsun maitasuna, ene arima,  
mendia baino sendoagoa da.

**Jaunak deitsun maitasuna, ene arima,**  
**gure bihurrikeriak baino tinkoagoa da.**

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
bere eskuen samurtasunagaitik.

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
**ama bat baino ere hobea dalako.**

**Bedeinkatu, ene arima, Jauna,**  
**gure buztin-orea**

**ondo ezagutzen daualako.**

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
Berak ondoen ulertzen daualako  
gure bihotz gaixotia.

**Jaunaren maitasuna, ene arima,**  
**betidanik betidaino da.**

Jaunaren maitasuna, ene arima,  
Bera maitatzen eta  
errespetatzen dabenentzat da.

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
zeruko aingeruekin batera.

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
aukeratuen batzarraren aurrean.


**Bedeinkatu, ene arima, Jauna,**  
**Historiaren Jaun bakarra.**

Bedeinkatu, ene arima, Jauna,  
bere erreinuko batzar guztietan.

Bedeinkatu, ene arima, Jauna:  
Goratu egizu bihotz-bihotzez!

Bedeinkatu, ene arima, Jauna:  
**Bere amaibako maitasunak**

**merezi dau gure abestia.**



Bide barriak urratu dozuz,  
zeure bidea eginez: Bidea zara!  
Egia iragarri dozu,  
argi eta garbi biziak: Egia zara!  
Bizia zabaldu dozu,  
**Jainkoaren bizia Zeu izanik: Bizia zara!**

Bidean ibiltzen hasi zara,  
beti urteten, zeure Herria lez.  
Zure bizitza eztabaidearen  
ezaugarri bihurtu dozu.  
Zure bizikerea eztabaidearen ezaugarri da.  
Gizonaren bihotzera  
ezpata zorrotza lez helduten da.  
**Zu Zeu egin zara guretzat  
Zeuri jarraitzeko deia.**

**Gizonaren Semea gizonen begietara  
maitasunez begira.**  
Gizonaren Semea,  
zapalduen besarkadera eskuak zabalik.  
Gizonaren Semea,  
iragarritako Berbea argizuzi lez agirian.

Dei egiten deuskuzu Zuri jarraitzera.  
Eta gizonak betiko  
euren zulutik atera dozuz.  
**Dei egiten deuskuzu Zuri jarraitzera.**


Eta bizia galtzea eskatzen deuskuzu,  
osorik galtzea.  
**Dei egiten deuskuzu Zuri jarraitzera.**  
Gizonen artean  
maitasunaren iraultza sortzeak  
dakarren gurutzea onartuz.  
Zure deia erradikala da.

**Zuk izenez deitzen dozu  
eta gizona betiko zeurea egiten dozu.**  
Zuk deitu eta sutan jartzen dozu,  
ezpatak eskura emonaz.  
Zuk deitzen dozu,  
Zeuk lehenen maitatu dozulako,  
eta maitasuna batasuna da.



**Zuk deitzen dozu, ona zaralako,**  
zure bihotzean poza dago-ta,  
eta Zeuri jarraitzera deitzen dozu,  
zoriontasunen mahaira.

**Hemen nozu, Jauna,**  
**jarraitu nahi deusut,**  
bihotz urratu eta guzti.  
Hemen nozu, Jauna, Zuri jarraituz,  
nire bizia aldatu nahi dot.  
Hemen nozu, Jesus Jauna,  
Zeuk jarri naizu nahi dozun martxan.



Hauxe izan nahi dot: Ur freskagarria,  
sikatuta dagoan loreari bizi barria ezarteko.

**Hauxe izan nahi dot:**  
**Ogi zatikatua, zatitua, eskuzabalez emoteko.**

**Hauxe izan nahi dot: Neure barruko pozez**  
**gainezka dagoan kopa.**

Hauxe izan nahi dot:  
Dolarean eihotako mahats-mordoa.  
Hauxe izan nahi dot:  
iturburua, erroa, neurri barik emoteko.  
Hauxe izan nahi dot:  
Gaurko munduan zure testigu: Testigu.


**Zure Espiritua, Jauna, datorrela nire gain.**

Zure Espirituak, Jauna, markatu,  
sagaratu eta berea egin naiala.  
Zure Espiritua, Jauna,  
izan dakidala sendotasun nire makalaldian.

Zure Espirituak lagunduta,  
isilik dagozan ezpanak edegi dagidazala.

**Zure Espirituak lagunduta,**  
**begietatik zapiak kendu dagidazala.**

Zure Espirituak lagunduta,  
oinetako kateak apurtu dagidazala.



**Neure Jaun eta Maisu,**  
**zure bidean egin nahi dot nire bidea.**  
**Neure Jaun eta Maisu,**  
**zure egian oinarritu nahi dot nire egia.**  
**Neure Jaun eta Maisu,**  
**zure bizian nahi dot nire bizia osotu.**  
**Neure Jaun eta Maisu,**  
**hemen nago zure deiaren zain.**

## JAUN BAKARRARI SALMOA

**Zu zara nire Jauna, Zu barik ez dot ondasunik,**  
ez dago zoriontasunik Zugandik kanpo.  
Jaunaren errukia beti ospatuko dot,  
autortuko dot zure leialtasuna gizaldiz gizaldi.


**Ene Jainko, sortu egizu nigan bihotz garbia,**  
barruz aldatu naizu, ez kendu niri zure espiritua,  
bihurtu egidazu zure salbamenaren poza.  
Zugandik datoz ondasuna eta indarra,  
Zu zara zeru-lurren Jauna.  
Zure eskuetan dagoz aintza eta ahalmena,  
Zuk egiten dozuz haundi eta sendo guztiak.

Zorionekoa bere ustea Jaunagan jarri dauana;  
zorionekoa bere gordelekua Jaunagan daukana!  
**Ene arima, goratu egizu Jauna,**  
nire izate osoak bedeinkatu begi bere izen santua,  
nigan dagoan dana Zuk ezagutzen dozu-ta

Zintzoak, ospatu egizue Jauna,  
bihotz zuzenekoan gorespina merezi dau-ta.  
Zorionekoa, Jauna bere Jainkoa dauan gizona!

**Guk Jaunagan dogu uste on,**  
Bera da gure laguntza eta ezkutua,  
Beragan pozten da gure bihotza.  
Bere izen santuaz fiatzen gara.

Abesti barri bat abestuko deusat Jaunari.  
**Jauna, Zu haundia eta aintzatsua zara.**  
Zeru-lurrak zerbidu zagiezala,  
beti Aita ona izan zaralako.



Jauna, erakutsi egidazuz zure bideak,  
zure bideetan argitu naizu,  
egizu leialtasunez ibili nadila beti.  
Erakutsi, bai, nire Jaungoiko  
eta Salbatzaile bakarra Zu zara-ta.  
**Jauna, Zu hurrean zagoz, entzun nire deia,**  
jaso nire laguntza-eskariak.  
Izan nitaz erruki.  
Emoidazu bizia zure aginduetan.

Jauna, Zuk lurraren ardurea dozu, ureztatzen dozu,  
egunero aberasten dozu zure bedeinkapenez,  
lur-hildoak ureztatzen dozuz, erne-muinak bedeinkatzen.  
**Zuk mundu beteko abestirik ederrena merezi dozu.**  
(Polisalmoa)





**JAUNA DOT ARTZAIN  
EZ DOT IZANGO NIK GOSERIK,  
HAK EMONGO DEUST  
ZER JAN ONIK.**

**Jainkoa da nire Artzain,**  
ez dot ezeren beharrik,  
bedar bizia dagoan zelaietan etzun-azoten nau;  
iturri geldietaruntz naroa.

**Eta bizkortu egiten ditu nire indarrak;**  
bide zuzenetik naroa,  
bere izenaren maitasunarren.

Ibar ilunetatik zehar joanarren be,  
ez dot bildurrik izango, **Zu neugaz zoaz-ta:**  
zure zigorrak eta artzain-makileak baretu egiten nabe-ta.

**Mahai bat atonduten dozu nire aurrean**  
nire arerioen kontra;  
orioz igurtziten deustazu burua,  
eta gainezka dago nire edontzia.

Zeure ontasunak eta errukiak egiten deuste lagun  
nire bizitzako egun guztietan;  
eta **Jaunaren etxea izango da nire bizitokia**  
amaibako urteetan.





## JAUNA GURE ITXAROPEN

1

Maiteko zaitut, ene Jaungoiko,  
Zu zara nire indarra;  
Zu nire harkaitz, nire gaztelu,  
laguntzaile txit azkarra.  
Zu beti nire burrukaldian  
ezkutu-leku bakarra;  
bihotz makala bixkortzen dauan  
goi-espírituugarra.



3

Ordu larrian nire etsaiak  
gogor jo ninduenean,  
laster zan nire Goi-goiko Jauna  
neu laguntzen aldamenen.  
Hainbeste maite nindualako  
beti bere bihotzean,  
onez atera ta jarri nindun  
zelai eder zabalean.

2

Arriskueta itxaropenez  
deitzen deutsat nik Jaunari:  
Berak erantzun ere bai laster  
nire bihotz-aihotsari.  
Goiko jauretze zoragarrian  
han dago begi-belarri,  
gure nahigabe guztien jabe,  
gau t'egun nire zaindari.

4

Leialarekin leiala zara  
zintzoarekin zintzoa,  
maltzurarentzat zuzena eta  
aukeratuen Jainkoa.  
Herri apalai gogoz emoten  
deutsezu salbazinoa,  
baita makurtuazo be ondo  
lur joteraingo harroa.

5

Zu zaitut, Jauna, argizuzia,  
ilunpetan dizdizari,  
Zugan uste on dodala, ekin  
ohi deutsot burrukeari.  
Zure besoak ateraten nau  
guztietan garailari,  
bildurrik gabe erasotean  
neure arerioari.

6

Bikainak eta jatorrak dira  
Jaungoikoaren bideak,  
okertuazo ezin ditunak  
gizonen huts-egiteak.  
Laguntza eske datorrenari  
arinduz bizi-nekeak,  
atseden-toki eskeintzen deutsoz  
beti bere hegopeak.

7

Burrukarako bete ninduzun  
ausardiz eta indarrez,  
makurtu ziran nire lepotik  
nasai ebiltzanak barrez.  
Danak igesi joan beharra  
izan eben derrigorrez,  
leize-zuloan ezkutatzera  
atsekabez ta negarrez.



8

Gora Jainkoa! Bedeinkatua  
dedila goi-goienetan,  
neure Jaungoiko Salbatzailea  
nire harkaitza benetan.  
Bera izan dot laguntzailea  
larrialdi guztietan,  
herriak menpe jarri eustazan  
loturik neure oinetan.



**Hau zoriona!  
Zu zaitut alde,  
Zu adiskide.**

**Zugana batzen naz, Jauna:**  
ez nadila sekula lotsatu.  
Zuzena zaran ezkerro, askatu eta onik atera nagizu,  
makurtu belarri hori, eta salbau nagizu.



Ene Jainko, zaindu nagizu urteen hondamenditik.  
**Zeuk eutsi barrutik,** nire gorputz eta espirituan,  
jausten doan etxe zaharraren habeak.


**Hau zoriona!  
Zu zaitut alde,  
Zu adiskide.**


Zu zaitut, Jauna, nire uste ona,  
Zu, Jauna, gazte nintzanetik, nire itxaropena.  
**Zugan tinkatu naz amaren sabeletik.**  
Nire umearoan ere Zu beti nigaz.  
Nire lehenengo gomutapenak zure maitasunez beterik dagoz.

Gaztetan ez zan izango egunik, Zugaz egon bakorik.  
**Zu zinan nire eguzkia, nire eguna,**  
nire akorduen hasiera eta amaiera.  
Zu zinan nire Jaungoiko, nire dana.

Ez nekian zer nintzanik ere,  
zure maitasuna begi-aurrean izan ez baneu...  
**Ahoa beterik neukan zure gorespenez,**  
egun osoa zure edertasunez.

**Hau zoriona!  
Zu zaitut alde,  
Zu adiskide.**





Bakardadeak estutzen eta nekatzen nau.  
Belaunak dardaraz daukadaz, eskuak ere dardar,  
nire memoria ilunduten doa.

**Ni itoginez beteriko etxe bat naz...**

Nire belarriak gortuten doaz,  
begiak ilunduten,  
eta nire arimako leiho guztiak ixten doaz.  
Baina ni, Jauna, beti nago itxaroten,  
gero eta gartsuago zure gorespenetan.

Nire ahoak zure zuzentasuna iragarriko dau,  
zure salbamena egun osoan.  
Gazteago nintzanean, Jauna,  
zure beso indartsuak eutsi eustan;  
**zahartu nazanean, ene Jainko, ez ni eskutik itzi.**

**Hau zoriona!  
Zu zaitut alde,  
Zu adiskide.**

Lehen ere, arrisku askotatik ibili arren,  
ez al nau zure esku indartsuak onik atera?

**Zelan itziko nozu orain hondatzen,**  
zure aita-maitasunez lagundu barik?

Gomutea daukadanetik beti maite izan zaitut, Jauna,  
**Orain urtez beterik, Zugana doaz nire begi-bihotzak,**  
**ume txikiarenak amagana lez, Zugan uste osoa dodala,**  
zure besoen babes seguruaren bila.

**Hau zoriona!  
Zu zaitut alde,  
Zu adiskide.**

*Zuk beteko dozuz nire begiak argiz, duintasunez eta pozez.*

***Maitasunez abestu nahi deutsut eskerrak emonez,***


*eta Zu goraldtu eta mundu guztiari autortu:*

*Ez dodala inor inoiz ezagutu Zu lango maitale sendo, leial  
segururik, hain Aitarik!*

**Hau zoriona!  
Zu zaitut alde,  
Zu adiskide.**



Pozik sentitzen naz.  
**Nire bihotza Jaunagan pozten da.**  
 Bere salbamena ospatuten dot.  
 Nik, Jauna, barre egiten deutset nire arazoei,  
 neugan zure maitasuna ospatzen dot-eta.



Zu santua zara, zuzena,  
 Zugan dana da armonia eta batasuna.  
**Zugan sendo sentitzen naz,**  
 oinak harkaitz gainean lez.  
 Zu barik, ez naz seguru sentitzen,  
 oinak hondar gainean lez.  
 Zu nire Harkaitz!

Gizakien berbak, Jauna, guzurrezkoak dira,  
 harrokeriz esanak diranean.  
 Zuk ezagutzen dozu giza-bihotza,  
 bertatik darion ona eta txarra.  
 Zuk badakizu banatzen berba faltsoa alde batera  
 eta egintza zuzena bestera.  
**Haundia zara, Jauna!**

Zugaz indartsuen armak desegiten dira,  
**Zugaz koldarrak adorez betetzen dira.**  
 Zugaz aseak ogi-truke sal-erosten dira.  
 Zugaz goseak loditu egiten dira.

Zugaz emakume agorrak  
 zazpi seme-alaba erditzen dabez,  
 Zugaz seme-alaba askoren ama agor gelditzen da.  
 Nire bihotza pozez dago, Jauna!  
**Zugaz bizitzea beste gauza bat da!**



**Zuk, Jauna, beheratzen eta goratzen dozu.**

Zuk, Jaunak, emoten dozu  
pobretasuna eta aberastasuna.  
Zuk, Jauna, leza-zuloan sartzen  
eta handik ateratzen dozu.

Beste barik!

**Nire bihotza Zugan pozten da,**  
zure bideak ez dira gureak-ta.


Holakoxea zara:

Zure lagunen pausoak zaintzen dozuz,  
gaiztoak ilunpetan galduten diran bitartean.


Holakoxea zara:

Bertan behera izten dozu,  
bere indar hutsez irabazi nahi dauana.

**Holakoxea zara: Salbau egiten dozu**  
zure esku errukitsuetan bere burua ipinten dauana.



**AURREZ-AURREKO SALMOA**  
-Abran-en salmoa-



**Zeuk deitu nozu, Jauna,**  
**nik zure izena jakin aurretik.**  
Bizitzeak porrot egin deustanean,  
Zuk jarri nozu tente.

**Zeuk atera ninduzun betikotik:**  
Betiko epelkeritik, betiko ohiturakeritik,  
betiko legekeritik, betiko zahartzaroko hiletatik.  
Eta bide barrian ipini ninduzun,  
beti barri eta hasten dan bidean,  
bideko gidari Zeu zaitudala.

Zeuk aukeratu ninduzun,  
ustebako agintzariak eginez,  
**neure izenez deituz,**  
**zeure esku-artean hartu ninduzun,**  
eta nire bihotza graziz bete zenduan,  
alperriko hondakinetatik hustuz.

Eta ni bidean jarri nintzan,  
bihotzean hego barriak sortu bailitxakidazan,  
bildurrez eta harriduraz eta ikaraz ortozik.


**Zure eskuetan ume bihurtu nintzan**  
eta Zuk besarkatuz seme-alaba bihurtu nozu.  
Ni zure agintzaria nire etxean  
beteko zalakoan nengoan.

Nik uste neban ni eta Sara lango zahar batzuekaz  
ezin dala bide eta bizi barririk sortu,  
gorputz eta bihotz zimurtzen hasita gero.

**Baina sartu zara nire bizitzan,**  
bizi eta bide barrien Jauna.

**Zutaz osoan fiatu naz,**  
**eta ezinaren gainetik,**  
**Zuk bete nozu bizi barriz.**  
Eta zure eskutik bide barriak ibiliz,  
bide barriak inguruan sortzeko  
eta ugaritzeko gai egin.





Zure presentzia eraginkorra izan da  
bizibarritu nauana. **Neuk ikusi dot neugan:**

Zure ondoan ezinekoak ahal dirala,  
zure graziz ta maitasunez bizi dana  
bizi barria darion iturri bihurtzen dala.

Eta Zuk nigan sortutako amets gozoak  
Zeu joan zara banan eskatzen;  
eta zeure maitasun-altarean  
eskeini neutsuzan negarrez.

**Emon eta kendu**

**Zeuk egiten deustazula sinisten dot,**  
baina gero eta haundiagoak  
eta ederragoak emonez.

Bide barrien Jauna,

**Zuk dakizu zer eta noiz emon eta kendu:**

Erakutsi zure bideak eta asmoak.

Ziur nago, zure bideen helburua zeure Etxea dala.

Ziur nago, nik emondako baietzak  
izango dauala erantzuna.

**Ziur nago, nik ereindako hazitxoak  
ez dala alperrik galduko.**

Ziur nago, ni zure eskutik nabilela,  
onik urtengo dodala,  
bideko gora beherak jakin ezarren.

Eskerrik asko, kendu deustazuna kendu deustazulako.

**BEDEINKATUA ZU!**

Eskerrik asko, emon deustazuna emon deustazulako.

**BEDEINKATUA ZU!**

Eskerrik asko, gitxien uste nebanean, deitu nozulako.

**BEDEINKATUA ZU!**

Eskerrik asko, nazan apurragaz hainbeste on egin dozulako.

**BEDEINKATUA ZU!**

Eskerrik asko, txiki sentitzen hasi nazanean,  
inoizkorik goren jaso nozulako.

**BEDEINKATUA ZU!**

Eskerrik asko zure Maitasunagaitik!

**BEDEINKATUA ZU!**

LARRIALDI BATERAKO SALMOA  
(30)

**Zugana, Jauna, babes bila nator;**  
hartu nagizu zure beso-artean.  
Ez nagizu bakarrik itzi,  
lotsaz eta bildurrez dardar nago-ta:  
Esku emoidazu.

**Izan zakidaz gordeleku sendo,**  
nire gaztelu seguru.  
Gidatu nagizu, zuzendu nire pausoak,  
noraezean galduta nabil-eta.  
Inguruan zabaldu deusten saretik askatu nagizu,  
Bertan harrapatu gura nabe-ta.


**Zure eskuetan izten dot nire bizia,**  
nire bizi-tza apurtuta, birrinduta.  
Erreskatatu nagizu, Jauna,  
istilu gorrian nago-ta,  
galduta sentitzen naz-ta.


Egiaren Jainko zaran Horrek,  
**emoidazu argi pixka bat, zuzendu nadin.**  
Zuk badakizu nire egoera larriaren barri,  
eta ezagutu dozu nire bihotzaren itolarria,  
askatu nagizu, zatoz azkar, atera nagizu arriskutik.

**Erruki zaitetz nitaz, Jauna; zatoz ondora,**  
neugaz batera negar egitera;  
Egon ere, deseginda nago,  
eta nire arimea larri ere larri dago.  
Gogait eraginda, begiak gorri daukadaz;  
gogorik ezaz jota nago.

Nire barruak kiribilduta daukadaz,  
eta **ez dakit zelan urten esturaldi honetatik.**  
Zapalduta sentitzen naz,  
baztartuta aurkitzen naz;  
eta inori ere ez deuso ardura.

Ni neuretzat galdua naz,  
eta neure buruak iguin emoten deust.  
Lagunak neukazalakoan, eta orain, Jauna,  
**Zeuren bakarrik gelditzen zaiataz.**





Edota nire arazoetatik igesi egiten dot  
edozelango bide galduetatik.

**Zaborra sentitzen naz,  
bartzarrera botaten dan  
gauzeztan tresna bat.**

Baina Zugan dot uste on, Jauna,  
Zu zaralako nire Jainko, eta nik maite zaitut;  
nire badaezpadako etorkizuna  
zure eskuetan ipinten dot,  
**askatu nagizu, zabaldu egidazu bidea.**

Argitu nire arpegia  
zure samurtasunaz eta errukiaren argiz,  
eta **bizibarritu nagizu zure maitasunez.**

Ene Jainko, nire larrialdian Zugaz kontatzen dot;  
**ez egidazu huts egin, maite zaitut-eta.**  
Ene Jainko, Zu beste bat zara eta holan maite nozu,  
oraintxe nagoan moduan desegina.

**Zein haundia dan zure ontasuna, Jauna!**

Zein harrigarria zure samurtasuna!  
Niretzat gorde dozu zure salbamena  
eta oparitzat emoten deustazu,  
zure parkamena eskeintzen deustazu.

Ni pozaren pozez lehertu egiten naz  
zure pakamenaren ziurtasunez;  
**barrero sentitzen naz zure seme-alaba,**  
zure etxera sartzen eta jaialdian parte hartzen.

Bedeinkatua Zu, Jauna,  
maitasunaren eta errukiaren Jainko,  
larrialdietan nire laguntza bakarra;  
**bedekinkatua Zu, Jauna,**  
**beste inor baino leialago,**  
zure azkenbako maitasunean zintzo.

**Zure harrigarrizko maitasunez bete nozu:**


Bedeinkatua Zu!

Zure begi garbiz begiratu nozu:

Bedeinkatua Zu!

Sendotu, arren, gure bihotz makala, Jauna,  
eta zure santutasunean izan dagidala uste on.  
**Eskerrak Zuri, Jauna, arnas barriz bete nozulako**  
eta pozik sentitzen nazalako.

**Zoratu egin nozu, Jauna,  
eta zoratzten itzi nintzan.**  
Azkenean ere, hainbeste burruka  
eta ahaleginen ondoren,  
Zu gehiago izan zara eta irabazi egin dozu,  
egun argiak gau iluna menperatzen dauan lez.  
Azpian hartu ninduzun, indarrez zeuganatu nozu.  
Zu beti zara Jainko!



Barregarri egin naz egun guztian.  
**Inok ez dau ulertzen zer dan maitasuna  
zure Maitasunean.**  
Guztiak irri eta barre egiten deuste,  
Zuk bizitzako askatasuna kentzen deustazulakoan.

**Zure testigu izan nahi dot,**  
eta zure Berbea neure aurka jarri jat.  
Ahotik urten orduko, hutsarena emoten dau.  
Lotsagarri eta iguingarri bihurtu naz guztientzat,  
lekuz kanpo dagoan hazurra lez.

Sarri dinot neure kautan:  
Ez dot gehiago zure izenean berba egingo,  
ez dot gehiago aintzat hartuko  
zure gainezkako maitasuna.  
Baina ezinezkoa da.

**Zure presentzia barik ezin naz bizi.**  
Su kiskalgarria lez zaralako,  
zehatz kontsumitzen nozula.

Are gehiago, Jauna:  
Egin ahalak egin dodaz eusteko,  
eta ezin izan dot.  
bakarrik eta galduta sentitzen naz.  
Baina **badakit neugaz zagozana.**



Jainko bat baino pixka txikiago egin nozu,  
eta gauza guztien buru ipini nozu.  
Dan guztia nire eskuetan ipini dozu,  
eta **zure miragarri horreekaz  
neu zoriontsu izatea nahi dozu.**  
Ospez eta aintzaz koroitu nozu,  
zure maitasuna eta leialtasuna nire bihotzean ixuriz.

Zure esku-lanen buru ipini nozu,  
dana neure oinpean jarri dozu.  
Zuk egin nozu, Jauna, gauzen jabe.  
Neure eskuetan ipini dozuz zientzia eta teknika,  
gizakiaren mesederako.  
Neure anaiaren arduradun ipini nozu,  
laguntzat emon deustazu, beragaz alkarbanatzeko,  
**danen lagun ikusi nahi nozu.**

**Jauna, zein haundia nazan zure begien aurrean!**  
Jauna zein haundia dan gizona zure begien aurrean!  
Jauna, zein haundia zaran Zu nire begien aurrean!

Zuk esan dozu gauza guztiak gureak dirala,  
gu zure Seme Jesusenak garala  
Eta **Jesusengan guztiak gara ZUREAK.**

**Aleluia! Jauna, gure Jainkoa!**  
**Aleluia! Zuri aintza, haundia zara-ta.**



1

Ikusten dozu, Jauna,  
nire egoera,  
aurrera beharrean  
noa goitik behera.  
Nire amets guztiak  
hor doaz hutsera;  
baina Zeu zatoz beti  
niri laguntzera  
eta aurrera noa  
zure esanera.



2

Nire bizitzan izan  
da neke ta lana,  
eta ahal dan ondoen  
jokatzen afana.  
Zertarako izan da  
nik egin dodana?  
Maitasuna izan da  
indartu nauana,  
hau da zure aurrean  
balio dauana.

3

Zuk dakizu ondoen  
nire ahalegina,  
ahalegin eta guzti  
burutu ezina...  
Zuri autortzen deusut  
ezinaren mina,  
gehien neurtzen dozuna  
ez da etekina;  
maitasunean dozu  
zure atsegina.



4

Zeru-lurrak sortu ta  
egin dituzuna,  
ainguru ta gizonen  
zoriontasuna.  
Zure eskuan dago  
nire ondasuna,  
eta Zeugan bakarrik  
nire etorkizuna;  
Zeu ez al zara nire  
aberastasuna?

5

Danak oker urtenda  
sarri nabil bero,  
baina Zugana jota  
pozik nago gero.  
Hau ondo ikasidot  
eta harrezkero,  
nahizta kontuak urten  
dozenerdi zero,  
miloi da zuk aurretik  
bat jarri ezkeru.

6

Nekez ta asko erein  
eta gitxi batu,  
halan be ez naz, Jauna,  
alperrik nekatu.  
Zuk betiko legea  
ez dozu aldatu:  
Zenbat zaitugun Zeu ta  
urkoa maitatu,  
Zurekin pozik, Jauna,  
egin leike tratu.

7

Ez da fidagarria  
lortu dodan nota,  
falta jakona, Jauna,  
Zeuk gainera bota.  
Neureari begira  
jartzen banaz jota,  
Zuk ipinten deustazu  
bihotza jasota;  
nire uste osoa  
Zuregan dago ta.

8

Zu Aita zaitudala  
nork deust jakinazo?  
Jesukristok esanda  
bihotzean jaso.  
Gu seme-alaba ta  
Zu gure guraso,  
gu galtzea litzake  
Zuretzat frakaso;  
Zu gure sorburu ta  
zorion-itsaso.



9

Zuk sortu dozu nigan  
zure egarria,  
Zeu izanik aseko  
nauan iturria.  
Zuganako joera  
nigan ezarria,  
bego sendo bizirik  
maite-lokarria,  
Zurekin bat eginik,  
Jaun maitagarria



**Jauna, badakit maite nozuna,**  
**ona zaralako;**  
 bihotz sentikorra dozu-ta,  
 parkatu egidazu;  
 Garbitu naizu, arren,  
 nire barru-hondoko hondar zikinetik;  
 eta nire etenbako jausialdietatik jagiazoz nagizu.


Santu zaran Horren aurrean  
 pekatari sentitzen naz,  
 nire pekatua neugaz bat-eginda dago.  
**Hauxe besterik ez naz ni!**  
 Zure kontra,  
 zure kontra bakarrik egin dot pekatu,  
 eta zure begiak penaz ikusten dabe  
 nire bihotza zikindurik.

Hau poza nirea!  
**Aita zara, baita zuzena ere;**  
 eta dana epaitzen dozu ezere truke barik,  
 Sentitzen dot!  
 Sortu ere, pekatuan ninduan amak sortu.

Jaio aurretik egon nintzan  
 pekatu-ilunpetan hondaturik.  
**Zure begien aurrean naukazu,**  
 nire barruan dagoan zuzena eta garbia maite dozu,  
 eta errukiz maite nozu isilean lagun zintzo lez.

**Besarkatu nagizu eta zure maitasunak**  
**bihotza aldatuko deust.**  
 Izan zakidaz lagun, eta gailurretara joko dot.

**Bihurtu egidazuz**  
**zure salbamenaren poza eta alaitasuna,**  
 galduak ditut-eta; eta nire barru osoa  
 jai-giroan goraka hasiko da.  
 Adiskide gara: ahaztu, arren, egin neban okerra,  
 Eta zure adiskidetasuna lagun, bizibarritu nadila.






Sortu bedi nigan, bizi-iturri lez, bihotz garbia,  
eta gogo sendoa ezarri nigan, Jauna.  
Zure arpegi alaia ikusi nahi dot nire ondoan,  
eta zure indarra aurretik dodala,  
beti lagundu deistala.

**Emoidazu, arren, bai, arren,**  
**zure salbamenaren poza,**  
eta zure alde dana jokatzeko  
prest dagoan bihotz leiala.

**Gazteei iragarriko deutset**  
**zein zoragarriak diran zure bideak;**  
eta Zu ezagutu barik pekatuan dabiltzanei,  
txastau dagiela zure maitasunaren gozoa.

**Emoidazu bizia, nik bizia maite dot-eta,**  
Zeu zara-ta biziaren Jainkoa;  
holan iragarriko deutset gizonei, Zugaz dana ahal dala.  
Edegi egidazuz nire bihotza  
eta ezpanak Zuganuntz, Jauna,  
zenbat maite zaitudan iragarri nahi deutset-eta.


Badakit Zu txotxokerietan ez zabiltzana,  
eta nigandik berba hutsak ez dozuzala nahi.  
**Bihotz damutua da eskatzen deustazuna;**  
**bihotz zintzoa eta leiala da nahi dozuna.**



Izan zaitez errukitsu nitaz,  
eta zaindu egizuz gure bizitza makalak.  
Zuri eskeintzen deutsugu  
gure eguneroko bizitza neketsua,  
Zuk, gure Jainko horrek,  
**gure bizi-opari hori zure altare gainean**  
**aurkitu dagizun eta poztasunez onartu.**

Bihurtu eiguzuz, arren, eskatzen deutsugu,  
poza eta alaitasuna,  
eta gure bizitza osoa jai-giroan goraka hasiko da.  
Adiskide gara: ez gogora ekarri egin deutsugun okerra,  
**eta zure adiskidetasunez**  
**eragin eiguzu bihoz barritzera.**

(50. salmoa)



**Bedeinkatzen zaitut, Jauna,  
bihotza pozez gainezka;**  
gau ta egun, bai lanean,  
bai atsedenean,  
Zu goraldtu nahi zaitut.

**Nire bihotzak Zugan bakarrik  
aurkitzen dau bizia,**  
maitasuna eta leialtasuna.  
Bai, Jauna, pozik alkartzen naz  
Zu goralduten zaituen gizon guztiekaz.

Ene Jainko,  
herri guztiak goraldtu zagiezala;  
herri guztiak goraldtu dagiela  
zure Izena etenbarik;  
**Zure bila ibili naz, Jauna,  
eta orain pozik daukat bihotza,**  
nire bildur eta esturetatik askatu nozu-ta.

**Nire begiak zuri begira daukadaz**  
eta zure argitan pozez betetzen dira;  
zoriontsu sentitzen naz, lasai nago,  
Zu goraltzen zaitudanean.

Bihotz-txikia naz, Jauna;  
Zuri dei egin eta  
Zuk erantzun deustazu;  
**Zu beti zagoz prest  
esturaldietatik ni ateratzeko.**

Ene Jainko, nik benetan  
txastatu eta ikusi dot zein ona zarean Zu!

**Ni zoriontsu naz,  
Zu nire bizitzaren ardatz  
aukeratu zaitudalako.**  
Zure aurrean, Jauna,  
bildur santuz eta errespetuz naukazu;  
ondo dakit Zu ondoan zaitudala,  
ez jatala ezertxo ere faltako.  
Zugandik urrun dabiltzanak esku hutsik  
eta ezebezean gelditzen dira;  
**zure bila gabiltzanok, Jauna,  
asebeteta gelditzen gara.**





**Ni Zuganuntz noakizu, Jauna,**  
eta nire belarriak adi dagoz  
zure berbetara.

Zure ondoan ikasi nahi dot  
zure maitasuna eta jakituria,  
zure aginduen arabera bizi nahi dot.

Ene Jainko, biziaren Jainko,  
nik bizitzea maite dot;

**Ene Jainko, nire bihotzak**  
zure presentziaz gozatzen bizi nahi dau.

Zaindu egizu, Jauna,  
nire mihina gatxetik,  
guzurrezko berbatik;  
**ez itzi nire ezpanak**  
**guzurrez zikintzen.**

Okerretik alde egin nahi dot, Jauna,  
eta egunero onari ekin;  
**bakearen alde egin nahi dot**  
eta parkamenaren zerbitzari izan.

Zu, Jauna, haundia zara, zoragarria,  
**ez da zu langorik inor;**  
Zuk entzuten dozuz gure deadarrak  
eta samurtasunez onartzen dozuz,  
gure estularriak zeure gain hartzen dozuz.

**Zu hurrean zagoz, Jauna,**  
bihotza urraturik daukanagandik,  
eta beti zagoz prest,  
hondaturik dagozanei laguntzeko.

**Zein ederra dan, Jauna,**  
**zu Jainkotzat eta Aitatzat eukitea!**  
Bai zoriontsu sentitzen nazala,  
Zuk seme-alabatzat naukazula jakitean!

Ni Zutaz fiatzen naz,  
dana itxaroten dot zure errukitik,  
**osoan fiatzen naz Zutaz,**  
**maite nozulako**  
eta nire bizia zaintzen dozulako.  
Goralduten zaitut, Jauna,  
bihotza pozez beterik dodala.

Zure izenean alkaturik, Jauna,  
txaloak jo gura deusuguz;  
Herrialde guztiakaz bat eginik,  
bizitzaren Jainkoari abestu nahi deusogu;  
zure Espirituak hemen baturik,  
goresten zaitugu,  
bedeinkatzen eta txalotzen.

Pozezko oihuz dinotsugu:  
**Haundia zara, gure Jauna zara!**  
Zure eskuetan itzi deustu  
Aitak ahalmen guztia:  
Errege zara!  
Zure eskuetan itzi dau Aitak lurbira osoa:  
Jauna zara!  
Aintza Zuri betiren beti!  
Aintza Zuri orain eta beti,  
Jesus Jauna!

Herrialde guztiak Aitak  
eskuetara emon deusuz.  
Gizaki guztiak emon deusuz Aitak,  
**Zugan danak seme-alaba izan daitezana.**  
Zugan, Jesus Jauna,  
Jainkoaren ondasun eta jabetasun guztia.

Zugan, Jesus Jauna,  
giza-erraza barriaren altxorra  
gara Aitaren aurrean.  
**Aintza Zuri betiren beti!**  
**Aintza Zuri orain eta beti, Jesus Jauna!**

Zugaz batera dinogu:  
**zu gure Jauna, bakarra zara, Haundia zara.**  
Aintza Zuri betiren beti!  
Aintza Zuri orain eta beti, Jesus Jauna!

**Aitak lurbira osoa zure eskuetan itzi deustu.**  
Errege zara!  
Zure eskuetan dago askatasunean hazten  
eta bizitzen doan umearen bizitza.  
Zure eskuetan gaztearen bizitza,  
bere etorkizuneko zentzunbidearen bila.



Zure eskuetan gizon eta emakumeen bizitza,  
alkar-maitasunean lotuta.

**Zure eskuetan nagusien bizitza  
betetasun betera heltzean.**

Zure eskuetan, Jesus Jauna,  
gure bizitzak Aitari eskeiniak.

Aintza Zuri betiren beti!

Aintza Zuri orain eta beti, Jesus Jauna!

Zure izenean, Jesus Jauna,  
umeak ona eta zuzena dan Aitari abestu deioela,

**zure izenean, gazteak goraipatu dagiela**

euren bizia eta maitasuna dan Jainkoa,

Zure izenean, andra-gizonak  
goraldu dagiela bizia dan Jainkoa.



**Zure izenean nagusiak bedeinkatu dagiela  
bizizaren eta aintzaren Jainkoa.**

Aintza Zuri betiren beti!

Aintza Zuri orain eta beti, Jesus Jauna!

Zeuk agindu egizu, Jesus Jauna,  
gizon-emakumeen bihotzetan.

**Zure Aitaren nahia bete dedila  
zeruan lez lurrean ere.**

Zure Aitaren Erreinua hazurmamindu dedila  
gure Herriaren Historia honetan.

**Zure Aitak emoten deuskun Ogia,  
guztien mahaira heldu dedila.**

Eta zure Aitak, Jesus Jauna,  
ez gaizala tentaldian jausten itzi.

Eta Zuk, Aitaren Bialdu Horrek,  
gatxetik jagon gagizuz.

Aintza Zuri betiren beti!

Aintza Zuri orain eta beti, Jesus Jauna!

**Bizitzaren Espirituaren indarrez**

**Zugaz alkarturik,**

**Aita berberaren etxepeko**

**batasunean alkarlotuta.**

**Bateo bakar baten  
ezaugarri bardinez identifikatuta,  
goresten, bedeinkatzen,  
adoratzen eta eskertzen dogu zure Aita.**

**Aintza Zuri betiren beti!**

**Aintza Zuri orain eta beti, Jesus Jauna!**



**TXASTATU EGIZUE ETA IKUSI**  
**(34)**

65


**Zu zaitut, Jauna,**  
**nik ondasuna,**  
**Zutzat naz dana;**  
**hau zoriona!**

Txastatu egizue eta ikusi zein ona dan Jauna!  
Bai dohatsu, Harengana ihesi doana!

Nok asmatu daike poztasun onik, Zugandik aparte?  
Edo-ta zeinek usmatu alaitasunik,  
Zuk maite dozuzan semeen arpegian  
dizdiratzen dozun hainakorik?



The Folio Querc. 120



**Zu zaitut, Jauna,**  
**nik ondasuna,**  
**Zutzat naz dana;**  
**hau zoriona!**


Zu zara argi eta egun, Aita,  
egunsentiaren sortzailea. Zugan bizitzea,  
argitan bizitzea da, zerua zapaltzea.  
Zu geugan eukitea,  
zoriontasun danak batera besarkatzea,  
danak, gehiago eta hobeak.

Zu umetxoen irribarre gozoa zara.  
Zugan eguzki-printza dizdiratsu gehiago dira,  
zoriontsu dan ama baten bihotzean baino.

Zugandik sortu dira egiazko maitasuna,  
poztasuna, ondasun guztiak  
Zuk jasoten dozuz gure bihotzetan  
maitasun eta poztasun-olatuak.  
Zelan ukatu ahal deuskuzu zure edertasun-ataltxo bat ere,  
Zugana begiak jasoten deutsuguzanoi?

**Zu zaitut, Jauna,**  
**nik ondasuna,**  
**Zutzat naz dana;**  
**hau zoriona!**





Txori-aldrak Zuk liluraten dozuz  
egunsentiko argi-dizdiraz.  
Zure indarrez lehertzen da lurra bizi barriz,  
Zuk aterazoten deutsezuz zaldie irrintziak.

Zugaitik, txakur saltariak lez, gure barruak borbor,  
zelaiak jaieguneko jantzi dotorez blai,  
gure bihotzak zure Bihotz Haundiko iturburuan  
asebeteko dira bizi barriz.

Bedeinkatu dagidan beti eta beti gure Jauna,  
nire ahoan beti zure gorespena;  
nire bihotza Jaunagan poztuten jat:  
poztu beitez apalak hori entzutean.



**Zu zaitut, Jauna,  
nik ondasuna;  
Zutzat naz dana;  
hau zoriona!**

Nire Jainkoa zuzena da.  
Alde nigandik arerio guztiok!  
Alde nire bildur-ikara guztiok!  
Alde nigandik, Jaunagandik urrun ibiltea,  
argi barik, neure buruaren kaltetan.

Inguratzen naben zoriotxarren artetik,  
Zugana joten dot, Zugan gordeten naz, Jauna.  
Zuk gozaten deustazuz nire zauriak.  
Zuk poztuko dozu nire bihotza.  
Nire hazur txikiena apurtzen ere ez dozu itziko.

**Zu zaitut, Jauna,  
nik ondasuna;  
Zutzat naz dana,  
hau zoriona!**



Begira egiozue, alaitu zaitezen,  
zuen arpegiak lotsatu ez daitezana.  
Atsekabetuak dei egiten badeutso, eta Jaunak entzun,  
estualdi guztietatik aterako dau bere eskuz.

**Zu zaitut, Jauna,  
nik ondasuna;  
Zutzat naz dana,  
hau zoriona!**

**USTE ONEZKO SALMOA**  
(26.salmoa)

**Jesus Jauna, biderako Argia zaitut,**  
Zu zara nik itxaro dodan Salbatzailea.  
Nundik norakoak dira ezkutuko bildur honeek?  
Noren bildur naz, Jauna?  
Bizitzea bidekurutze bat lez da,  
eta sarri noraezean aurkitzen naz,  
ez dakit nondik nora jo.  
Zugan sinisten dot, Jesus Jauna,  
Zu zara nire bizizaren zaintzailea.  
Nok ni ikaratu?



**Ondo dakit Zuri jarraitzea bide latza dana.**  
Egon ere, zenbat gauza daukadazan esku-eskuan!  
Ziur nago, euren atzetik banoa,  
irabazi nahi neban askatasuna galtzeraino katigatuko nauela.  
Hau ere badakit: Zuri jarraitzen badeutsut konfiantza osoz,  
bideko trabak jausiko dirala, udazkeneko orbelak lez.

Datozela nire kontra guzurra eta gogorkeria,  
atseginaren eragin gaiztoak;  
nire bihotzak, Jauna, ez dau bildurrik.  
Han-hemen mila aukera eder eta errez agertu arren,  
nire bihotzak euren eskeintzetara itxita iraungo dau,  
**Zugan nasai eta bakez bizi naz-ta.**

Gauza bat bakarrik eskatzen deutsut, Jauna,  
**honexen bila nabil ni:**  
**Zeugaz bat-bat eginda bizitzea,**  
Zeu laguntzat zaitudala,  
eta Zuk nigaz dozun adiskidetasun zintzoaz pozik bizitzea.  
Tentaldian Zeuk babestuko nozu, aterkinak euritean lez;  
Eta holan harkaitz sendoaren gainean lez sentiduko naz seguru.

Jesus Jauna, entzun egidazu, arren, deika nagotzu-eta.  
Erruki zakidaz; **zure arpegi-bila nabilkizu.**  
**Nire bihotza ziur dago, Zuk maite nozula,**  
Eta neugan egon zagozala,  
Eta nire arazoak ardura deutsuela, lagun zintzo bati lez.





**Zure arpegi-bila nabilkizu:**

ez egidazu gorde zure arpegia.

Ez naizu bertan behera itzi,

Zeuren zara nire Salbatzailea-ta.

Emoidazu, arren, ziurtasun hau:

Ni aitak eta amak zapuztuko banindue ere,

Zu beti izango zaitudala nire ondoan.

Jauna, erakutsi egidazu zure bidea,

eroan nagizu bide zelaitik.

Beti lagun izango zaitudala uste dot.

Nik nahi dodana hauxe da:

**Zure Bizitzaz nire bizitzan gozatzea.**

**Zugan itxaroten dot, Jesus Jauna:**

Emoidazula bihotz adoretua eta ausarta,

Zuri jarraitzeko.

Zu zara, ba, nire biderako argi,

eta oso-osoan fiatzen nazan Salbatzailea.



(77)

**JAUNAGAZ NAGO  
EZ NAZ GEHIAGO / BILDURTUKO.**

Jainkoagana jaso dot deadarra, oihuka nauka,  
**Jainkoagana nire deadarra, entzun nagian.**  
Eta nahaste-borrastea, hau nire itaun larria:

“Betirako zapuztu ete gaitu Jaunak?  
Ez ete dogu gure alde izango aurrerantzean?  
**Agortu ete da betirako Haren maitasuna?**  
Galdu ete da betirako Haren esana?  
Errukitzea Jainkoari ahaztu ete jako?  
Edo-ta sumindurik bere errukia agortu ete da?



**JAUNAGAZ NAGO  
EZ NAZ GEHIAGO / BILDURTUKO.**

Eta nik esan neban orduan: “Hau da nire zoritxarra!  
Goi-Goikoaren eskua aldatu jatala!  
**Gomutatzen naz Jainkoak eginetaz;**  
zure lan guztiak buruz erabilten ditut  
eta zure mirariak hausnartzen ditut

**Zu agertzen zinan zure Herri Israelen aurrean,**  
Ejidotik urteteko Zuk urratu zeuntson bidea itsasoan;  
bere gose-egarriak Zuk asebate zeuntsozan basamortuan.

**JAUNAGAZ NAGO  
EZ NAZ GEHIAGO / BILDURTUKO.**

Zuk agindutako lurraldea emon zeuntson.  
Zuk atondu zeuntsazan osagarriak bere hainbeste zaurientzat.  
Eta Zuk arduraz zaintzen dozun ordua heldu zanean,  
**zure maitasuna zeure Semearen bihotzean agertu zeunskun,**  
zure argia bere begietan, zure ahotsa bere hitzetan.

**Zure Espiritua bialdu zenduan**  
eta suzko egunsenti barria sortu zenduan,  
Eleizearen mendabal haize bultzagilea.  
Beti izan dira andra-gizonak euren izen eta guzti ezagutuak,  
argi eta indarrez beterik, zure Semearen urratsak jarraitu ebezanak.

**JAUNAGAZ NAGO  
EZ NAZ GEHIAGO / BILDURTUKO.**



Baina, Zuk, beti eta danen gainetik,  
mundu ederrago baten bila diharduzu,  
**eta giza-bihotzetan ontasun,**  
**justizi eta garbitasun egarria sortzen dozu,**  
zure eskuetako lana aurrera eroan nahirik.

**JAUNAGAZ NAGO  
EZ NAZ GEHIAGO / BILDURTUKO.**

Lehenagoko aldietan lez,  
gure herria ere noraezean dabil, Jauna,  
bere historiako aldi txarrenetan lez.  
**Gaur egun, Jauna, behartsu**  
**eta pekatari ikusten dogu geure burua;**  
ateo, sinisbako eta haundiki harroputz askoren artean kikilduta.







Bai, pekatari sentitzen gara, Aita, herri-moltzoan galduta,  
sasijainko-zaleen artean kutsatuta,  
Zu hilda ete zagozan askoren orruak entzuten,  
edo-ta argi eta garbi horretan sinisturik dagozanen artean.  
Noraezean gabiltzan, sarritan lurjota,  
Zugandik urruti egoteaz hotzak hilik,  
zure arpegiaren irudia ahaztuta...

**JAUNAGAZ NAGO  
EZ NAZ GEHIAGO / BILDURTUKO.**

**Zu, Aita errukitsu izanik, maitasunez hartu izan dozuz**  
aldendutako seme-alabak.  
Zu zara gure Jainko, betikoa eta bizia,  
beti maitasunez aurrez-aurre zaituguna.

Zu, Aita, atzo, gaur eta beti,  
gure artean zagoz zure ahalmen eta erruki guztiaz,  
Zugan jarten dogu gure maitasun osoa,  
Zugan gure gaurko samintasun guztia,  
Zugan gure etorkizuna,  
Zu gure itxaropen sendoa, itxaropen guztien aurka.

**JAUNAGAZ NAGO  
EZ NAZ GEHIAGO / BILDURTUKO.**



## ZINTZOAREN ATSEKABEA

1

Neure Jaungoiko! Neure Jaungoiko!  
Zergaitik zazpuztu nozu?  
Hainbat deadar eginda ere  
Zuk baztartuta naukazu.  
Nire otoitzak eta aihotsak  
ez al dira Zuganatu?  
Edo bestelan, ene Jaungoiko!  
Zuk aintzakotzat ez hartu?



3

Gure guraso hareik Zuregan  
eben usteon osoa,  
eta Zuk danei emon zeuntsen  
askatasun txik gozoa.:  
Etengabean egin eutsuen  
bihotz eskari beroa;  
hutsegin barik lortu ere bai  
Zugandik bake giroa.

5

“Begira zelan hau doakion  
Jaungoikoari eskean,  
bere eskutik salbazinoa  
lortuko dauan ustean.  
Esan ohi dauan bezela maite  
baldin badau bihotzean,  
onez atera daijala beti  
bere estutasunean”



7

Horregaitik Zuk ez dagizula  
niregandik iges egin,  
datozan ordu samin gorritan  
zagoz , bai, Jauna nirekin.  
Laguntzailerik onena beti  
Zeu zaitudala banekin,  
ta zure beso indartsu horrek  
ez dagistala huts egin.

2

Egun guztian ni Zuri deika,  
halan be, Zuk erantzun ez;  
Gau baltz astuna datorrenean  
hor naukazu atsekabez.  
Baina jauretxe zoragarrian  
Jaungoiko bizi zaranez,  
zure Israel honen otoitzak  
entzun egidazuz onez.

4

Baina ni ez naz har bat besterik,  
gizonentzat lotsagarri,  
gizadiaren aurrean lizun  
simaur eta igungarri.  
Nunahi ikusten nabek guztiak  
emoten deutse barreari,  
buru-eragin eta kinuka  
halan dinotse alkarri:

6

Zuk Zeuk atera ninduzun, Jauna,  
amaren ume-tokitik,  
eta Zeuk eutsi be bai gero  
hazi arte bularretik.  
Zure menpean nago ni beti  
jaio nintzan egunetik,  
bakar-bakarrik Zu zaitut Jainko,  
nere ama-sabeletik.

8

Hainbat idizko -begiak sutan-  
hor dabilta inguruan,  
Basango zezen gaiztoak sartu  
nahi nabe esi barruan.  
Aho zabalik amorratuak  
bere biziko orruan,  
iruntzi nahirik datoz nigana  
lehoigosetimoduan.

9

Odolez ase nahi daben txakur  
amorratuak alboan,  
bihotz gabeko gaizto taldea  
sutan bere gorrotoan.  
Esku ta oinak zuloz beterik  
ditut odol-jarioan,  
nire hazurrak bana-banaka  
zenbatu leikez behingoan.

11

Nire ondasun eta bizia  
Zu zara bakar-bakarrik,  
gorde nagizu une guztitan  
etsaiaren ezpatatik.  
Urrineratu nadila txakur  
eta lehoi hortzetatik,  
ez dagidala gehiago ikusi  
basa-idien adarrik.

13

Bera da nire pozkari eta  
aintza baztar guztietan,  
beteko ditut nire eskeintzak  
zintzo danen begietan.  
Behartsu diran danak jan eta  
aseko dira benetan,  
Jaunaren bila dabiltzan danak  
aupatuko dabe jaietan.


15

Jaunarena da erregetza ta  
Bera herri danen jabe,  
Haren aurrean ahuspeztu behar  
beste aukerarik gabe.  
Orain lurrean bizi bai baina  
hilgo diranak halan be,  
hauts bihurtuta han egoteko,  
gero barriz biztu arte.



10

Baina, Jaungoiko, jagi ta zatoz  
azkar niri laguntzera,  
etsai guztiak gainean ditut  
badatoz ni zapaltzera.  
Ustez gogorrak badira ere  
ez dot egingo atzera,  
indar berbera zaitudan Hori  
neurekin baldin bazera.



12

Goralduko dot zure izena  
herriaren batzarrean,  
kantu gozoak alai abestuz  
nire anaien artean.  
Goraldu Jauna, zintzo guztiok,  
ospatu etengabean,  
Jakoben seme, Israel dana  
ahuspeztu bere aurrean.

14

Hau gomutau ta Jaunarengana  
bihurtuko dira danak,  
lur osoaren muga batetik  
bestera bizi diranak.  
Aurrean ahuspez jarriko jakoz  
buru harroz dabiltzanak,  
gogoz menpeko jarri ere bai  
hamaika sendi otzanak.

16

Ondorengoak izango ditu  
betirako zerbitzari,  
zelan jabetu erakutsiaz  
datorren gizaldiari.  
Harek jakinaz, zenbat zor deutsan  
bere Jainko zuzenari,  
gogotsu ta eskerronean  
ekingo deutsa kantari.



## ZU ZATITUT, JAUNA, NIRE ONDASUNA

### 16.SALMOA


#### ZU ZAITUT, JAUNA, ONDASUNA.

Zaindu nagizu, ene Jainko,  
nire gordelekua Zeugan dago-eta.  
Hauxe dinotsot Jaunari:  
“Zeu zara nire ondasuna”  
Lurreko jainkoak eta jaunak  
ez nabe beteten.

Jainko arrotzen irudiak  
ugaritu egiten dabez;  
nik ez dot inoiz ere nire eskuekaz  
hareen odol-oparirik isuriko,  
hareen izenak nire ezpanetan ez dodaz hartuko.

#### ZU ZAITUT, JAUNA, ONDASUNA.

Jauna da nire oinordetzaren saila ta nire edontzia,  
zeure eskuan dago nire zoria:  
“Atal ederra urten jat niri,  
betiko jat nire soloa”  
Onulari jatan Jauna bedeinkatuko dot,  
irakatsi egiten nau barruz.





Jauna daukat nire aurrean;  
nire eskumaldean bera dodala,  
ez dot zirkinik egingo.


**ZU ZAITUT, JAUNA,  
ONDASUNA.**

Horregaitik poztu egiten jat bihotza,  
alaitu egiten jataz erraiak,  
eta nire haragia nasai-nasai dago:  
Ez nozu heriotzara eroango-ta,  
zure adiskideari usteltzea ezagutzen ere  
ez deutzazu itziko.

Bizitza-bidea erakutsiko deustazu,  
atseginez beteko nozu zure aurrean,  
betiko pozez zure eskumaldean.

Aintza Aitari, eta Semeari eta Espiritu Santuari,  
lehen lez orain eta beti, gizaldi eta gizaldietan. Amen

**ZU ZAITUT, JAUNA,  
ONDASUNA.**





**Eskerrak, Jauna,  
Zu bai ona!  
Zuk emona da  
dogun dana.**

Jauna, Zuganan jasoten dot bihotza;  
ene Jainko, Zugan dot uste on;  
ez nadila lotsatu.

**Zugana nator ihesi, Jauna,**  
neure pobretasunaren hondotik,  
Zeuganaino heldu nahirik hegaz.

**Eskerrak, Jauna,  
Zu bai ona!  
Zuk emona da  
dogun dana.**

Baina, sarri nire barru-eraginak  
okerrera joten dau;  
**Zeuk erakutsi egidazu bide zuzena,**  
Zeugana eroango nauan bide garbia.

Zeuzara nire Jaungoiko eta Salbatzaile,  
eta, **Zeugan goizero itzartzean,**  
**zeure edertasunez asetzen nozu,**  
eta egun guztira zure maitasunean murgiltzen naz.

**Ez oroitu, Jauna, nire pekatuetaz,**  
ezta nire aldikada ilunetaz,  
ezta hutsik daukadazan eskuotaz.


**Eskerrak, Jauna,  
Zu bai ona!  
Zuk emona da  
dogun dana.**

Errukiz begiratu nire makaltasunak,  
Zeuri oratzen deusut-eta,  
erruki nitaz, zure maitasunez.


**Zuk ondo dakizu maite-maite zaitudana.**

Nire begiak Jaungoikoagan daukadaz,  
bai bihotza, arimea eta gogo osoa ere.

Beragan oinarritzen naz,  
nire maitasunak Haregan dau oinarria.







**Eskerrak, Jauna,  
Zu bai ona!  
Zuk emona da  
dogun dana.**

Berak ateraten deustaz oinak saretik,  
**nire hegoak haizez Zeuk puztuten dozuz.**  
Zugandik igoten dau bizi-indarrak niganaino.

Ez hondorik, ez azkenik ez dozun Jainkoa,  
**zenbat maite zaitudan!**  
Zein zabala egin zenduan nire hondartza,  
zein asegatxa nire egarria!

**Eskerrak, Jauna,  
Zu bai ona!  
Zuk emona da  
dogun dana.**

Begira niri eta nitaz erruki, ene Jainko,  
hondar pixka bat eta basamortu naz-ta.  
**Zaindu nire bizia eta onik atera nagizu**  
arrisku guztietatik.

Ene Jainko, atera egizu onik Israel,  
**salbau gagizuz gizon-emakume guztiok,**  
zeure seme-alabok,  
estualdi guztietatik.

**Eskerrak, Jauna,  
Zu bai ona!  
Zuk emona da  
dogun dana.**



## TXOSTENEKO SALMOEN ZERRENDA

0. SALMOAKAZ ALKARTEAN OTOITZEAN
1. APAL TXIKIAREN SALMOA
2. ASE NAGIZU, JAUNA, ZURE MAITASUNEZ
3. BADAKIT ZEU ZARANA
4. BAI EDER, JAINKO!
5. BAI MIRAGARRI!
6. BAI MIRAGARRI ZURE IZENA!
7. BARETASUNA BERRESKURATZEKO SALMOA
8. BARRURATZEKO SALMOA
9. BEGIOK MENDIETARA JASOTEN DITUT
10. BEHARTSUAREN ABERASTASUNA
11. BENETAKO ADISKIDEAREN SALMOA
12. BIHOTZ SENDO BATENTZAT SALMOA
13. BIDEAN DOAN GIZONAREN SALMOA
14. BIDERAKO SALMOA
15. BIHOTZ ZAURITU BATEN SALMOA
16. BIHOTZ ZINTZOAREN SALMOA
17. BIHOTZ ZORIONTSU BATEN SALMOA
18. BIHOTZETIK BIHOTZERAKO SALMOA
19. BIHOTZ-HONDOKO SALMOA
20. DANA TXARTO URTETEN DAUANERAKO SALMOA
21. DOHAINTRASUNEZKO SALMOA
22. EGUN BARRIAREN HASIERAKO SALMOA
23. EGUNA AMAITZEKO SALMOA
24. ENE JAINKO, NI ONIK ATERA
25. ERRUKI ESKE SALMOA
26. ERRUKI, JAUNA!
27. ERRUKI, JAUNA, EZEBEZA GARA TA
28. ERRUKIA ESKATZEKO SALMOA
29. ESKER ONEZKO SALMOA
30. ESKERRAK EMOTEKO SALMOA
31. ESKERRAK EMOTEKO SALMOA
32. ESKERRAK JAUNARI
33. EUSKARRI BILA DABILENAREN SALMOA
34. FEDE SENDOKO BIHOTZAREN SALMOA
35. GOGOA JASOTEKO SALMOA
36. GORALDU EGIZUE JAUNA BERE JAURETXEAN
37. GORDE NAGIZU ZURE BEGI-NINIA LEZ
38. GORESPENEZKO SALMOA

39. GURUTZILTZATUAREN SALMOA
40. HEGAPEKO ZIURTASUNETIK SALMOA
41. HURTASUNEZKO SALMOA
42. ITXAROTEN DAGOANAREN SALMOA
43. ITXAROTEN DAUANAREN SENDOTASUNA
44. ITXAROTEN IKASTEKO SALMOA
45. ITZITASUNEZKO SALMOA
46. JAINKO, NIRE JAINKO ZAITUT
47. JAINKOA ETXEKO
48. JAINKOAREN EGARRI DANAREN SALMOA
49. JAINKOAREN PRESENTZIAREN SALMOA
50. JAINKOAREN SAMURTASUNAK ERAGINDAKO SALMOA
51. JARRAIPENEZKO SALMOA
52. JAUN BAKARRARI SALMOA
53. JAUNA DOT ARTZAIN
54. JAUNA GURE ITXAROPEN
55. JAUNA, ZU IZAN ZARA NIRE ITXAROPEN NIRE GAZTAROTIK
56. JAUNAGAN POZTEN DANAREN SALMOA
57. JAUNAREKIN AURREZ-AURREKO SALMOA
58. LARRIALDI BATERAKO SALMOA
59. LILURATU EGIN NOZU
60. MIRAGARRITASUN SALMOA
61. NAGUSI DAN JAUNA DOT INDAR
62. PEKATARI DAMUTUAREN SALMOA
63. POZEZKO GORALPENAREN SALMOA
64. TXALO ETA GUZTIZKO SALMOA
65. TXASTATU EGIZUE ETA IKUSI
66. USTE ONEZKO SALMOA
67. ZER? JAUNAK BETIKO ITZI ETE GAITU?
68. ZINTZOAREN ATSEKABEA
69. ZU ZAITUT, JAUNA, NIRE ONDASUNA
70. ZUGANA JASOTEN DOT BIHOTZA, JAUNA.

71. } TXOSTENEKO SALMOEN ZERRENDA  
72. }

